

# GUaiXE.net



**KORRIKA 18**

>> OTZARTE	02:20:00
>> ALTSASU	03:11:30
>> OLAZTI	03:40:00
>> ALTSASU	03:56:30
>> URDIAIN	04:08:30
>> ITURMENDI	04:20:30
>> BAKAIKU	04:26:30
>> ETXARRI ARANATZ	04:44:30
>> LIZARRAGABENGOA	05:08:30
>> ARBIZU	05:20:30
>> LAKUNTZA	05:32:30
>> ARRUAZU	05:44:30
>> UHARTE ARAKIL	05:56:30
>> IRANETA	06:14:30
>> IHABAR	06:32:30
>> HIRIBERRI	06:38:30
>> SATRUSTEGI	06:50:30
>> EKAI	06:56:30
>> ETXARREN	07:02:30
>> IRURTZUIN	07:20:30

**beleixe zuzenean**

>> 2/16

## Ostiral goizaldean: KORRIKA

AEK-k antolatutako euskararen aldeko errelebo lasterketa, KORRIKA 18, ostegunean hasiko da. Andoingo Martin Ugalde kultur parke-tik Euskal Herrira zabalduko du KORRIKAK mezua: euskara elkar entzuteko eta ulertzeko hizkuntza da; euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza. Helburu hori lortzeko ahalegina egin eta euska-

ra ikasi duten milaka pertsonak omenduko dituzten KORRIKAK. Hilaren 24an Baionan jakinen da eskuz esku pasatuko lekukoak zein mezu duen. Aurretik, ordea, 2.000 km-tik gorako bidea du. Lasterketak lehen gaua Sakanan egingen du ostiralean. Otzaurtetik Nafarroara 2:20an sartuko da, Sakana 5 ordutan zeharkatzeko.



**3, 2, 1, 0... Bihar, Olazti-Urbasa Rallyspinta jokoan >>> 9**



**Deialdi ugari Emakumeen Nazioarteko Egunean >>> 3**



**Olaztiko Rallyspinta Guaixeren eta Belexeren alde**

## Rallyan bazkari bat zozketatuko da, Plazaola Hotelean!

Zenbaki saritua Martxoaren 15ean Guaixen!

**Sakana optika**

Beste progresiboekin arazoak badituzu hauekin ez duzu izango

Adaptaziorako 3 hilabeteko bermea

**VARILUX 40**

Urte honetan Varilux eyecode ko lente progresibo batzuk oparitu eta guk beste progresibo batzuk oparituko dizkizugu, zuk nahi duzunerako.

optikasakana@gmail.com • 948 563 124 • Iortia Plaza 11 • ALTSASU



**LANGABEZIAK GORA:** Otsailean Altsasuko enplegu bulegoan izena emanda zeuden langabetuen zerrenda luzatu egin zen. 46 gehiago (%2,66) izan ziren eta guztira 1.775

pertsona dira bulego horretan lana bilatzeko izena emanda daudenak. Nafarroan 927 gehiago (%1,67), 55.597ra iritsiz.

# ezkaatza >>

## SAKANA

# Emakumeen Eguneko egitaraua

Mugimendu feministak eta emakumeen erakundeek aldarrikatutako eskubideak eskuratzen joan ziren XX. mendean. Nazio Batuen Erakundeak 1975ean martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna izendatu zuen, gizon-emakumeen arteko berdintasun aldarrikapenari mundu guztian bultzada emanez. Gaur da eguna eta Sakana bada zer aldarrikatu oraindik.

**Irurtzunen** bihar Idoia Aragonekin kafe-solasaldian parte hartzeko aukera izanen da. Bildutakoak sexualitatea zentzuen bidez aberasteko aukeraz ariko dira hizketan, 16:30etik aurrera, kultur etxean. Gauean Iratxo elkartearen afaria izanen da. Asteazkenean, berriz, 18:00etarako jarri dute hitzordua plazan. Han bilduko diren irurtzundarrak Iruñerazinemara joanen dira. Heldu den ostiralean, berriz, herriko antzerki tai-

lerrak prestatu duen antzezlanaren aurreneko emanaldiak eskainiko ditu.

Via Campesina nazioarteko erakundeko nekazari eta abeltzainek emakumeen indarkeriaren kontra kanpaina abiaraziko dute. Gaur, 17:00etan, **Etxarri Aranazko** plazan horren berri emanen dute. Hura despedituta, Etxarriko emakumeen batzordeak antolatuta auzatea izanen da, 17:30etik aurrera. Ondoren Altsasun antolatutako manifestazioan parte hartzea deitu dute.

**Altsasuko** Feministak eta Bilgune Feministak gaur aldarrikapena eta ospakizuna uzartuko dituzte. Emakumeen Nazioarteko Egunean. **Gure gorputza, gure erabakia** leloarekin, 19:00etan, manifestazioa abiatuko da Foru plazatik. Hura despedituta Alde Zaharrean triki-poteoa izanen da. Hura bukatutakoan



Joan den urtean Altsasun egindako bilkura.

Zubi-ondo elkartearen afaltzera bilduko dira emakumeak. Gaua gatzetxean izanen den kontzertu eta jaiarekin despedituko da: Flamenkituk eta Azuk joko dute.

Bestalde, atzo eta hurrengo bi ostegunetan emakumeek Iortia

kultur gunean emanen diren filmak dohainik ikusteko aukera izanen dute. Gonbidapenak ordu bete lehenago jaso behar dira.

**Olatzagutian**, berriz, herenegun Pakistango emakumeen egoerari buruzko hitzaldia izan zen.

## Altsasuko Udala

Berdintasunak mundua eraldatzen du: defendaezazu! Lelohoria aukeratu du Altsasuko Udalak gaurko egunerako. Garazi Urrestarazu Zubizarreta alkateak, bando bidez, krisiak krisi ohartarazi du: "egonkortuta zeudela ustegen eskubide eta jendartearen lorpenetan atzerapausorik egonez dadin eta hasitako bideari jarraitzeko helburuz, nahitaezkoa da emakume eta gizonen arteko egiazko berdintasuna lehentasunezkoztat jotzea eta horren alde egitea". Udalak helburu horrekin duen konpromisoa berretsi du alkateak.

Gaur, 20:00etan, San Migel plazan kontzentrazioa deituta dago, *Feministon sokari eutsi, sistema hau erautsi!* leloa duena. Egitaraua bihar, 20:00etan, kultur etxean izanen den antzezlanarekin despedituko da.

&gt;&gt;

## Munduko emakumeen topaketa

**Martxoaren 14an, ostegunean, 13:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean**

Kultura ezberdinetako emakumeak elkar ezagutu eta esperientziak partekatzeko guneak sortu asmoz, emakumeen topaketak sustatu izan ditu Mank-en Immigrazio Zerbitzuak. Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta, arratsaldean egin ohi den bilkura eguerdira

aldatu dute. Bil-tzen diren emakumeek jatekoa eraman behar dute eta denen artean bazkaria eginen dute.

Informazio gehiago nahi duenak 648 070 710 telefonora edo [immigratio@sakana.com](mailto:immigratio@sakana.com) e-postara jo dezake. Osteguneko topaketa Altsasuko Emakumearen Bilgunearen eta Burunda mendebaldeko gizarte zerbitzuen mankomunitatearen laguntzarekin antolatu du Immigrazio Zerbitzuak.



## Etxarri Aranatz

# Etxarrik elikadura burujabetzari buruzko hausnarketa foroa hartuko du

**Bihar, larunbatean, 9:15etik aurrera, Etxarri Aranazko kultur etxean**

Nazioarteko merkatu eragilean mende dauden elikagaien aurrean jendeak beren elikadura, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza sistemak definitzeko duen eskubidea aldarrikatzen da elikadura burujabetzak terminoaren bidez. Helburu horrekin Euskal Herrian dauden esperientziak ezagutu eta proiektu ezberdinen mapa osatzeko, martxan jarri da hausnarketa foro bat, anitza eta

zabala izan nahi duena.

Etxarri Aranazko biharko bile- ra deitu duena Zazpiak bat harreman sarea izeneko elkarteak da, duela sei urte Udalbiltzatik sorturiko herri-ekimena. "Nekazari, industria edo alor kulturalen, proiektu ezberdinak bultzatu, Euskal Herriko lurralde ezberdinak elkarri bizkarra eman beharrez, elkarri begira jartzea da gure helburua", azaldu digute. Proiektu xume eta konkretuak bideratuz, sare ekonomiko zein kulturalak indartu nahi

## Egitaraua

**9:15ean** Izen ematea.  
**9:30ean** Agurra eta aurkezpena.  
**10:00etatik 12:30era** Taldeetako eztabaida.  
**12:30etik 13:00etara** Auzatea bertako produktuekin dastaketa.  
**13:00etatik 14:00etara** Ondorioak eta "aurrera begira zer?"

dituzte. Hasieran bere jarduna Zuberoara mugatu bazen, gaur egun zazpi herrialdeetara zabaldu da elkarteak. Gaian interesa duten guztiak biharko forora gonbidatu dituzte.

## Bazkide zozketa



**MARSUKO SARIAK:**  
- 2 SARRERA EKAINBERRI KOBAZULOETAN + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA  
- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRAREN 2 SARRERA

- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA  
- KATXIPORRETA 1 ARROPA + TRIMAN NAVARRA 2 SARRERA

## Non erabili

# Beleixeguaixe txartela

[www.guaixe.net-en](http://www.guaixe.net-en) zerrenda osoa ikusgai

### BASOMUTUR

**ALTSASU**

Menuan %6ko deskontua.

### BILTOKI TABERNA

**ALTSASU**

Eguneko menuan, kafea doakoa. Karta menuan, kopa edo postrea doakoa.

### AVIA GASOLINDEGIA

**HIRIBERRI**

0'05 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

### IÑAKI OINETAKOAK

**ETXARRI ARANATZ**

50€ko erosketetan %5eko deskontua.

### AINHOA ESTETIKA

**IRURTZUN**

2 produktu erosita, % 10eko deskontua.

### ASENSIO

**ALTSASU**

100 €tik gorako erosketetan hurrengo erosketarako 10€ko

balea. (eskaintza ez metagarria).

### IL PADRINO

**ALTSASU**

Eguneko menuan txupittoa doan.

### SABECO

**ALTSASU**

Eskaintza kanpainaren arabera.



Aingeru Mikeo

# Eman euskara elkarri

**astekoa**

'Korrika' euskarari laguntzeko egiten delako, hamaikarrazoi baino gehiago euskaraz egiteko: Euskal Herrian sortu eta garatutako hizkuntza delako, gutxienez 15.000 urtetik hona arbasoek hitz egin dutena; garai hartako hitz-altxorak bizi-bizirik irauten duelako 'ur, lur, elur, zur, haur, hezur, euri,

haitz, aitzur, aitzo, izotz, izar, eguzki, egun, eguraldi, eta abar'; bere historia luzean konkistaldi guztien aurrean aitzina atera delako -zel-tak, erromatarrak eta latina, sueboak eta bisigodoak eta germaniarra, gaztelarrak eta gaztelania eta abar-; gure mendien izenak, ibaie-nak, herrienak eta abar euskaraz

mintzodirelako; baita gure izenak eta abizenak ere; hizkuntz-ekologiari aniztasuna ematen diolako; ez delako sexista; malgua eta dinamikoa delako, sasoi guztietako egoeretara moldatzen jakin izan duena; gigatera moderno delako, teknologia berrietara ere bikain egokitu dena; ezagutzarako hiz-

kuntza delako; munduan barna inolako lotsarik gabe agertzeko duina delako; komunikazio kode bat baino gehiago delako, euskal kulturaren arima baita; euskararik gabe, euskaldun izaterik ez dagoelako; mundua ulertzeko beste ikuskera bat ematen duelako; gurea delako; aspaldikoa izanaga-

tik gaztea delako; gure seme-alabek hitz egiten dutelako; irri eta negar euskaraz egiten dugulako; etorkizuneko Euskal Herriaren hizkuntza delako; maitagarria delako; elkarri ematen ahal dugun gauzarik ederrenetako delako: EMANEUSKARA ELKARRI. aingerumi@gmail.com

## hara zer dien

### Adin txikikoak, kontsumoak eta legedia

Oraingoan guztien ardura den edo izan beharko litzatekeen gai bati buruz arituko gara. Ez horregatik arina, nahiko korapilatsua izatez eta iritzi oso ezberdinak sortzen dituena.

Guztiengatik jakina da gure komunitatean ezin dela 18 urte bete arte edan, eta ez bakarrik hemen, estatu mailan ere ia komunitate guztietan gertatzen den gauza da hori.

Eta guztiok dakigun gauza izan arren, legea ez dela betetzen ere

guztiok dakigula esango nuke. Adinez txikiak direnek ere kontsumitu ohi dute, ez egunero eta ezta ere astebururo, baina baino izan behin.

Esan bezala, gertaera honetan arduradun ezberdinak daude: lehenengoak eta pisu handiena dutenak gurasoak dira, gero komertzioak (bai tabernak, zein alkoholadun edariak saltzen dituzten dendak) eta legea betearazi behar dutenak.

Nahiz eta arduradun nagusia

kontsumitzen duen pertsona izan, adin txikikoak direnean, gaztearen familia da arduradun nagusia eta zuzena: familiek bere seme-alabak non dauden eta zer egiten duten jakin beharko luke eta are gehiago adinez txikiagoak direnean. Baina normala da ere gazte hauek kalean lagunen artean eta gurasorik gabe egotea. Honekin oso lotua dago gazteari ematen zaion diru kantitatea eta seme-alabek dituzten joerak; hau da, etxera iristeko orduak, lagu-

na, izaera... Hau guztia lantzea gurasoei tokatzen zaie.

Beraiei, gazte hauei, adinagatik tokatzen zaiena, legeari kasu gutxi eta ez betetzen saiatzea da, nagusiek dituzten portaerak imitatzearekin batera. Hemen da, tabernarien eta dendarien ardura agertzen denean: oso garbi eduki beharko lukete adin txikikoek alkohola ezin zaiela saldu eta eginez gero zeintzuk diren ondorioak.

Kate honetan, ezinbesteko beste zatia, legea betearaztea da. Herri-autoritatea da legeari kasu egiten zaiola bermatu behar duena.

Esan beharra dago, legeak ere bere funtsa duela, ez dela adin bat jartzeagatik jarri, baizik eta 18

urte betetzean pertsonak erabakitzeke gai garela pentsatzen delako, eta ahal den heinean, gure osasunerako kalte gutxien egiten diguten erabakiak hartuko ditugula uste delako. Honekin oso lotutako informazioa: pertsonaren garuna hazten dagoen bitartean oso txarra da alkohola edo beste substantzia batzuk kontsumitzea; prozesu honetan kalteak askoz okerragoak dira garunaren garapena bukatua dagoenean baino. Eta jakin dezazuen, garuna 23 urte bitarte garatzen doala diote jakintsuek.

Guzti hau esan ondoren, hausnarketara gonbidatzen zaituztegu.

#### Prebentzio programak

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunak EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun

guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzi

erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foruen plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

### Jateko naturalak nahi ditugu: errausketarik ez

Gorka Ovejero Ganboa, Lugorri Elkarte

Duela 4 urte, elikagai ekologikoak jateko eta produzitzeko modu naturalak zabaldutako asmoz, hainbat sakandar elkartu eta Lugorri elkarte sortu genuen. Gero eta gehiago gara. Gure helburu nagusienetako bat bertako produktu natural-ekologikoez gozatea da. Hala, Sakanako nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa sustatu eta gure ahalmenen arabera ibilbide hori egin nahi duten laborariak lagundu nahi ditugu. Olaztin Portland-FCC-k milaka tona zabor erretzeko agertu duen asmoaren aurrean:

- Ikerketa ugari frogatu bezala, zaborra erraustea osasunaren-

dako kaltegarria da.

- Errausketak sortzen dituen isuriak (dioxinak, furanoak, metal astunak...) oso arrisku-tsua dira jan eta edarien katean sartu eta pilatzen baitira. Pilatze hau bereziki nabarmena da gantza duten elikagaietan, esaterako, esnekietan, gazta eta haragietan.

- Europar Batasunean 2020. urterako, birziklagarri izan daitezkeen hondakin guztiak berreskuratu eta birziklatu beharko dira, erraustea erabat baztertuz. Europatik heldu den erronka honi erantzunez, Sakanan hondakinak kudeatzeko beste eredu bat lantzen ari gara.

Zaborra errausten den eskualde batean, produktu osasuntsu eta ekologikoak ekoiztu edo produzitu eta kontsumitzea baldintza-

tua dago zaborra erretzeak sortzen dituen arazoengatik. Bateriaezinak dira, beraz, Lugorri-deok helburu dugun Sakananatural-ekologikoa eta zaborra erraustea. Gure aukera Sakanan osasunaren aldekoa da; horregatik martxoaren 16an Altsasun egingen den manifestazioarekin bat egitera animatzen zaituztegu.

### Sena kontua da

Ernesto Leiza Urrestarazu

Badut hainbat ezagun Cementosen lan egiten dutenak eta lanaz eta osasun onaz gozatzen jarrai dezaten nahi dut. Sakanan izan dugun industri egitura ahaltsua hein handi batean enpresa honi esker izan da, ordainetan airea kutsatu bada ere.

Orain udalaren erabakiaren aurka inposatu nahi dena ez da onargarria. Hori ez du inork bere inguruan nahi. Ezin dut ulertu Portlandeko langile batzuk errausketaren aurka dauden beste pertsonekin haserretzea, gure osasun onaz gozatzeko eskubidea defendatu besterik ez baitugu egiten, Tafalla eta Tuteran bezala. Han alderdi politiko guztiek errauskailu bat hurbil izateari uko egin zioten. Bierzoko zementu-fabrikari ez errausketeko Luis del Olmo kazetariak ere pankarta eraman zuen.

Egun Sakanan ematen diren minbizi kasu ugariak susmagarriak dira, zer izango ote da errausketan hastean? Nolako izango da gure seme-alaba eta bilobentzat? Pentsatzeak ere beldurra ematen dit.

Minbizi izateko aukera bikoiztea berdin zaigu? Neska-mutilak kaltetuenak izango direla jakinda ere, berdin zaigu? Fetuengan ematen diren malformazioak eta abortuak hirukoiztea, berdin zaigu?

Niri ez. Ez nuke nire burua axolagabetzat jo nahi eta hemendik urte batzuetara egin beharrekoa ez nuela egin pentsatzerik, ez dut damutu nahi. Horregatik 3M Brekin bat egingo dut martxoaren 16an izango den manifestazioan. Gure seme-alabengatik, ilobengatik, lehengusuengatik, lagunengatik, gu hemendik joaten garenean beraiek hemen geratuko direlako, hau gelditu behar da. Ez du politikarekin zerikusirik, bizi-raute sena da.

Osorik: [www.guaixe.net](http://www.guaixe.net)

## Guaixe

**ARGITARATZAILA:** Bierrik Fundazioa • [bierrik@guaixe.net](mailto:bierrik@guaixe.net)  
**GUAIXE:** Foru Plaza 23, 1. solairua, 31800 ALTSASU • 948 564 275 • 948 562 107 • [guaixe@guaixe.net](mailto:guaixe@guaixe.net)  
**PUBLIZITATEA:** Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.net](mailto:publi@guaixe.net) • Maria Saez de Albeniz Bregaña • [publizitatea@guaixe.net](mailto:publizitatea@guaixe.net) • 948 564 275

**Erredakzio burua:** Alfredo Alvaro Igoa  
**Erredakzioa:** Maider Betelu Ganboa  
**Maketazioa:** Ainhoa Etxeberria Pikabea  
**Laguntzaileak:** Amaia Amilibia Salgado, Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena, Gixane Andueza Goikoetxea eta Erkuden Ruiz Barroso  
**Zuzentzailea:** Oihana Zubeldia

**Lege gordailua:** NA-633/1995  
**Tirada:** 4.500 ale

### LAGUNTZAILEAK:

**Mank**  
 s a k a n a



## &gt;&gt; Arakil/Irurtzun

**Kalean, Iruñea iparralderako institutu berri eske**

Biurdana institutuaren masifikazioarekin bukatzeko Iruñea iparraldean institutu berri bat egiteko eskatzen ari dira. Arazoa kalera ateratzeko atzo kontzentrazioa egin zuten Iruñeko udaletxe parean, barruan gaia aztertzen zen bitartean. 2014ko irailetik aurrera Biurdanan espazio arazo larriak izanen dituztela salatu zuten. Bestalde, haur eta lehen hezkuntza-konahiz bigarren hezkuntzako aurre-matrikulazio garaia dela eta, gurasoei dei egin diete seme-alabak Biurdanan matrikulatzera animatzeko. Horrekin batera, Hezkuntza Departamentuari lehenbailehen konponbidea emateko eskatu diote. Gainera, aurreko ostiralean Aralar NaBaiko Nekane Perez parlamentariari erantzunez, Iribas kontseilariak adierazi zuen azken bi urteetan 122.000 euroko inbertsioak egin direla Biurdanan. Eta gaur egun kalitatezko hezkuntza emateko eta berme guztiak dituen eskaintza egiteko aukerak aztertzen ari direla.



## SAKANA

**Lanbideen generoaz, ikasletik ikaslera**

Altsasuko Lanbide Heziketakoko (LH) ikasle eta irakasle talde batek atzo hasi zuen ibarreko DBHko ikastetxeetan barnako bira. Emakumearen nazioarteko eguna dela eta DBHko 3. eta 4. mailako ikasleekin bildu nahi izan dute LH-koek, hainbat helburu partekatuz. Lehen Hezkuntzako ikastetxetara bisitak egitea ere ez dute baztertu.

Izan ere, ikastetxetxetik ikastetxeko erronda horretan Emakumeen egunaren zergatia azalduko dute LHkoek. Horrekin batera, lanbidearen aukeraketari buruz hausnarketa zabaldu nahi dute hainbat galderen bidez: Zein ikasketa



Lanbide heziketakokoak klasean azalpenak ematen. UTZITAKOIA

eta lanbide mota aukeratzeko dute gizonen? Eta emakumeek? Zerga-

tik? Gizonen lanbideak? Emakumeen lanbideak? Guztia Nafarro-

**Egutegia**

- >> **Martxoak 7, osteguna**  
9:00etan Andra Mari ikastolan.  
11:30ean Sagrado Corazon ikastetxean.
- >> **Martxoak 8, ostirala**  
10:45ean LH institutuan Emakumeen eguneko ekitaldia.  
11:30ean Iñigo Aritza ikastolan.
- >> **Heldu den astean**  
Aralarko Mikel Donea institutuan.

ako datuak emanda azpimarratu dute. Esaterako: LHko eta unibertsitateko ikasketa batzuetako gizon eta emakumeen kopurua, gizon eta emakumeen prestakuntza maila, soldata...

## &gt;&gt; Altsasu

**Ezgaitasuna duten gazteendako programa izanen da apirilaren 2tik 5era, 17:00etatik 20:00etara, Inbixostiapunta gazte gunean**

**3 eta 12 urte bitarteko haurrendako bi aukera daude: 8:30etik 13:30era edo 11:00etatik 13:30era, Kangu udal ludotekan**

Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egitea xede duen Altsasuko III. itunean bateraga-

**Aste Santuan kontziliaziorako aukera**

rritasunak atal bat du, eta edozeini bere bizitza eta lana egokitazunez garatzeko aukera aitortzen dio. Horregatik, Altsasuko Udalak bere baliabideak jartzen ditu herritarrei bizi baldintzak hobetu eta ardura familiako kide jakin

batzuen bizkar ez uzteko. Nafarroako Gobernuak diru-laguntzak kendu ditu.

3 eta 12 urte bitarteko haurrendako eta ezgaitasuna duten gazteendako Bateragarria-Dibertigarria programan izena eman

nahi dutenek martxoaren 12ra arte eman dezakete izena. 012 telefonora hots egin behar da eta txartel bidez ordainduko da. Izena emate tasetarako, zenbait kasutan, hobariak ere aurreikusi ditu Altsasuko Udalak.

## &gt;&gt; Altsasu

**Mugagabeko greba Lazaro Echeverria enpresan**

**25 langiletatik 6 kaleratu zituen ilbeltzaren 30ean, ELAko ordezkari sindikal bat barne, eta lan baldintzak aldatu nahi dituzte**

Herenegun hasi zituzten mobilizazioak enpresako langileek (ELAko 3 ordezkari). ELAtik gogorazi dutenez, Lazaro Echeverriak 2011ra arte "irabazi handiak izan ditu eta ekoizpen jaitsiera batez baliatuta lan erreforma bere gordinen" aplikatu zaiela salatu du.

Gutxieneko kalte ordainarekin (20 egun lan urte bakoitzeko) gelditu dira kalean 6 langileak. Enpresan 35 urteko antzinatasuna zuten langileak dira kaleratuak. Haien

kalte-ordainak handitzeko enpresak langileei proposatu die "lan baldintzak okertzea, hau da, guk ordaintzea lankideen kalte-ordina", salatu dute ELAtik.

Sindikatuak lan erreforma "bere gordinen" aplikatu zaiela salatu dute. Kaleratuak berriro hartzea edo bestela kalte ordaina lan egindako urte bakoitzeko 45 eguneko izatea eskatu dute. Kaleratutako ordezkari sindikalarren kasuan, hura berriro onartzea edo kaleratze bidegabea onartzea eskatu dute ELAkoek, "langileak erabakitzeke segitzen

duen edo ez, baina beste inork kaleratu gabe".

**Aldaketa**

Lan baldintzen funtsezko aldaketa proposatu die enpresak langileei: soldata %10 murriztea, asteko lanaldia larunbatetara luzatzea eta "malgutasun neurri onartezinak". ELAk neurri horiek "berehala" baztertzeko eskatu du. Sindikatuak lan hitzarmen bat negoziatzeko proposamena luzatu dio enpresari. "Baita langileen eta enpresaren lasaitasuna bermatuko duten formulak aztertzea ere". ELAk kriti-



Langileak Altsasuko udaletxe aurrean protestan.

katu du enpresak ez duela ultra-aktibitate aplikatu nahi eta lan

hitzarmeneko soldata baldintzak aplikatu nahi dituela.

**Lingua Navajorum**

Martxoaren 14an, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Korrika heldu da!

Hasi motorra berotzen antzerki barregarri batekin!

6€  
(Korrika laguntzaleek 5€  
eta 16 urteko beherakoek 3€)



## SAKANA

# Erraustearen kontra mobilizatzeko deia

Nafarroako Gobernuak Portlandi 55.000 tona hondakin (hiri hondakin, plastiko, pneumatiko, arazte-giko lohiak...) erretzeko baimena eman ondoren, egitasmoaren kontra mobilizatzeko deia egin dio gizarteari 3 Mugak Batera (3MB) plataformak, eta hilaren 16an Altsasun egingen den manifestazioan parte hartzeko eskatu du.

Plataformako kideen iritziz, gobernuak "udal autonomiaren gaineratik pasa da herritarren osasunerako errespetu handiagokoak eta babesleagoak diren arauak indargabetuz, multinazionalaren aurrean makurtu da". 3MBk husteraz Portlandek bi helburu ditu: "hondakin errausketa zabaldu eta aldi berean beren plantetan kalera-eratzak ugaritu".

Plataformakoak kritiko azaldu dira gobernuaren planetan hondakinak errausteko kokapena zehaztu ez izana eta esku pribatuetan uztea, "Nafarroan errausketa isilpean FCCren zementu fabrikaren bitartez sartu nahian". Errausketa ondo-ondorio kaltegarriak azpimarratu eta beste eskualdeetan kontra azal-



Porlandegiaren IBBri helegitea aurkeztu dio 3MBk

Olatzagutian hondakinak erregai gisa erabili ahal izateko Nafarroako Gobernuak Cementos Portland Valderribasek Ingurumen Baimen Integratu (IBB) berria eman zion. Erabaki hori berraztertzeko helegitea aurkeztu du 3 Mugak Batera (3MB) plataformak. 3MBk eskatu du gobernuaren erabakia baliogabetzea edo haren deuseztagarritasuna. Helegitea Sakanan, Goierri, Arabako Lautada eta Lizarraldean ordezkatzen duten plataformako kideek aurkeztu dute.

du direla gogora ekarri dute 3MBkoek. "Beste inon nahi izan ez dutena, hemen indarrez inposatzea bide okerra da". Hondakinak erre beharrean, bestelako kudeaketa ereduen alde azaldu dira. "Erokeria galaraztekoa" eskatu dute plataformatik.

## Hitzaldia

Larunbatean 60 pertsona bildu zituen plataformak hitzaldi batean. Errausketa ingurumen eta osasun ondorioen berri eman zuten Peio Lozanok eta Mario Fernandezek. Gainera, porlandegiaren egitasmoaz informatu zuten.



## Natur parkeko patronatua, bi urte baino gehiago bildu gabe

### Ingurumen Departamentuak Urbasa-Andia natur parkearen kudeaketa egiten ari den manipulazioa salatzen du

Ingurumen Departamentuak Urbasa-Andiako natur parkeko patronatuaren funtzioak "mesprextatu" dituela salatzen du Gurelur talde ekologistak. "Legeak agintutako bilerak ez dira egiten eta horrela gizarte eragilearen parte hartzea baliogabetu du. Bi urte baino gehiago dira patronatua azkeneko bildu zela".

Gurelurretik ohartarazi dutenez, ekimen askok ez lukete patronatuaren oniritziarik izan, "proposamen gehienek abeltzainen eta

ekologisten ezezkoa jasoko bailukete, parkearen ohiko erabilaren eta natur-balioen kontserbazioaren kontrakoak baitira". Talde ekologistak salatzen duenez, "natur parkeko baso kudeaketa ez dira irizpide jasagarriak erabiltzen ari. Egurketarien interesak ingurumen eta gizarte interesen gaineratik jarri dituzte".

Talde ekologistako kide batek azaldu digunez, "parkean dagoen legez kanpoko harrobiaz, kanpinaren hondakinaren kudeaketaz edota egiten uzten ari diren jardueren inguruan azalpenak ematea nahi dugu. Ekarpak egin,



Patronatuko bilera. ARTXIBOA

eztabaidatu". Departamentuari ingurumen sentsibilitate eskasa egotzi diote. +www.guaixe.net

## MOTZEAN

## Kaluxa jatetxearendako Q kalitate ziurtagiria

Urtero Espainiako Kalitate Turistikoko Institutuak Q kalitate turistiko-ko ziurtagiriak banatzen ditu. Kalitatea zaintzen dutelako aitortza jaso duten establezimenduen artean dago Kaluxa jatetxea. Urdaingarrek astelehenean jaso zuten ziurtagiria, Nafarroako beste 26rekin batera.

## DYAk zerbitzu bera emanen du ibarreen

Nafarroako Gobernuak DYAr aurtentzen 138.000 euroko diru-laguntza emanen dio (240.000 2012an eta 376.000 euro 2011n). Laguntza elkarrekin orain arte Sakanan eman duen zerbitzu bera ematen segituko du. 25 sakandar ari dira DYAn lan boluntarioa egiten. Egoitza Altsasuko Bakea kalean du elkarrekin. Iruñean DYAk zituen 5 anbulantzia gidarietatik 3 kaleratu behar izan ditu eta 2 anbulantziarekin gelditu da, bat medikua izan den duena.

## Mauka bila

Halaxe ibili zen jendea asteburuan Burundapilotalekuan. Altsasuko Dendarien Elkarrekin antolatutako TV stock azokan dozena bat dendaren eskaintza izan zen. Arropa, oinetakak, etxea janztekoak eta burdindegiko materiala eskuratzeko aukera izan zen. Jende ugari ibili zen, batez ere, larunbatean. Gainera, tabernetan pin-txo-potea eskaintza zegoenez, jendeak ez zuen hura pasatzen utzi.

## 30 gazte europar boluntarioendako prestakuntza ikastaroan

Otadiako Kristo Deuna aterpeak aste honetan Europako gazteei zuzenduta Nafarroako Gobernuak antolatu duen ikastaroa hartuko du. Belgika, Bulgaria, Eslovenia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Italia, Polonia, Suedia eta Turkiatik etorritako gazteak boluntario gisa trebatzen ariko dira. Estatuko errealitate soziokulturalari buruzko ezagutzak jaso eta Europar Batasunari buruzkoak indartuko dituzte. Izan ere, berri-gazte horiek estatuan barna boluntario lanak egiten hasi dira.

## Gure geroa pizteko, itzali zure argia

Proposamen horixe egin zuen atzorrako Autopista Elektrikorik Ez plataformak: ordu erdiz etxeko argiak itzali eta zarata egitea. Deikaztelu eta Itxaso arteko 400 Kw-ko argindar linearen proiektuak ukitzen dituzten herritarren protestarekin bat egitea deitu du. Ekimen horrekin plataformak salatu nahi zuen Red Eléctrica Española enpresak (REE) argindar linea horren tramitazioarekin aurrera segituko duela.

Autopista Elektrikorik Ez plataformako Edurne Visiersek adierazi zuen goi tentsiokolineak ez duela nahikoa justifikazio interes kolektiborako. Horretarako, besteak beste, argudiatu zuen estatuko argindar kontsumoa urte-tik urtera jaisten ari dela; eta Espainiako Gobernuak argindar garraioaren planifikazioa egungo egoera makroekonomikoa kontuan hartuta egitea eskatu du. Estatua argindar esportatzailea bihurtu dela ere gaineratu zuen.

## Estra ordaindu zuten udalei informazio eskaera

### Sakanako 15 udaletatik 10etan ordaindu zen estra

Bilduk jakinarazi duenez, langileei eguberrietako estra ordaintzea erabaki zuten udalek Estatuko Gobernu Delegazioaren errekerimenduak jaso dituzte. Bilduk udal horien kontrako mehatxuak salatzen ditu eta gogora ekarri du, langile publikoek soldata osoa jasotzeko eskubidea babestu zuela Nafarroako Parlamentuak eta erakunde berak informazio eskaera horiek bertan behera uztea eskatu zuela.

## Bi sakandar Sorturen zuzendaritzan

Otsailko azken asteburuan egin zuen lehen biltzar eratzailerak Sortu alderdiak. Ezker abertzaleko alderdi berriaren kongresuan kontseilu nazionala hautatu zuen. Hasier Arraiz izan da presidentea eta berarekin batera Sorturen kontseilu nazionalan Juan Kruz Aldasoro eta Bixente Goikoetxea izan dira. Etxarriarra Nafarroako Sortuko koordinatzailea da. Altsasuarra, berriz, nazio mailako irizpideekin hautatu dute.

**PORTUKO** okindegia  
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822  
Etxarri Aranatz: 948 460 988  
Urdaian: 948 563 763

**IHESLARIAK**  
**ETXERAK**

**BILTOKI**  
taberna

tel. 948 467 876 Altsasu

**TXIKITXO**  
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08  
Ferialeku 2 - ALTSASU

Tel.: 948 562 829  
faxa: 948 563 002

**Unamuno**  
ALTSASU

**BEROGAILUENDAKO**  
**BIOERREGAIA**

**FRUTA-ARBOLEN**  
**GARAIA BADATOR**

## MOTZEAN

## Sinadura festa, herri galdeketa babesteko

Etxarri 2012+1 herri ekimenak autodeterminazio eskubidearen aldeko galdeketa egin nahi du. Zehazki galdera hau luzatu nahi die etxarriarrei: Ados al zaude Etxarri Aranatz, Euskal Herriko udalerrria izanda, Europako estatu independente berri baten parte izatearekin?

Galdeketak arautzen dituen legediari segituz, ekimeneko kideek 200 sinadura lortu beharko dituzte hura aurrera eraman ahal izateko. Baina etxarriarren ahalik eta babes gehienarekin aurkeztu nahi dute eskaera. Horregatik, bihar 2. sinadura festa egingen dute. 11:00etatik aurrera plazan musika auzatea eta beste izanen dira. Udaletxea ere zabalik izanen da galdeketa babesa azaldu nahi dionak sinadura eman ahal izateko.



## MOTZEAN

## Xabierko gaztelua, fededunen bilgune

Aita Santuaren uko egiteak markatuko ditu aurtengo Xabierraldiak. Fededun goiztiarrenak bihar goizean aterako dira bidera, Xabierko gaztelua helmuga dutela. Lehen erro-mesaldia igandean izanen da. Gurutze-bidea 8:00etan abiatuko da Zangoatik eta bi ordu geroago

Xabierko Frantziskoren familia gaztelu aurrean meza izanen da. Bigarren erro-mesaldia, berriz, hilaren 16an izanen da. Orduan, gurutze-bidea 15:00etan hasikoda. Graziako bederatziruena ospatzen ari da eta Sakana hartzen duen Mendialde bikarriotzako hainbat kristau asteartean Xabierren izan ziren.



## Sunsundegui

## SAKANA

## Proiektu "ilusio-eragile" baten alde iluna

Sunsundegui enpresa hornitzaileei 5,2 milioi euro zor dizkie, Sakanako 2,7. Batzuk itxi lezaket

Sodenak Sunsundeguiaren ardura hartu zuenean 2009an, autobus konpainiarekin lan egiten zuten enpresa hornitzaileei gutuna bidali zien. Proiektu "ilusio-eragile" batean parte hartzera gonbidatu zituen Sodenak enpresa horiek. Eta, horrekin batera, Sunsundegui haiekin zuen zorraren %20 barkatzea ere eskatu zien Sodenak. Hornitzaileek baldintzak onartu zituzten eta azken urteetan egingako lanagatik kobratu izan dute.

Baina bazkide baten bilaketak abenduan porrot egin zuen eta hartzekodunen aurre-lehiaketa aurkeztu zuen Sodenak Sunsundeguirako (28rako zordunekin zorra negoziatu behar du, bestela lehiaketara pasatuko da). 13 enpre-



Sunsundegui 100 bat langile bildu ziren atzo Nafarroako Parlamentu aurrean. UTZITAKOIA

sa hornitzaileak egindako lanagatik kobratu gabe daude. Haien etorkizuna eta 115 langileren jokoak arriskuan. Baina ez da enpresa hornitzaile guztien kasua, batzuk hitzarmena sinatua dutelako eta itxiz gero ere zorra kobratuko lukete. Lourdes Goikoetxea kon-

tseilariak parlamentuan esan zuen gobernuak ez zuela bere gain hartuko zor hori.

## Bilera

Asteartea Sodenarekin bildu ziren enpresa hornitzaileen ordezkariak. Sunsundeguirako bazkide

bila segitzen dutela azaldu zieten eta, beraz, lantegiaren itxiera ez dela ziurra. Hornitzaileei ziurtatu zieten Sunsundeguiena ez dela arazo politikoa, ekonomikoa baizik: "ez dago inbertitzeko dirurik".

Sunsundeguiaren kudeaketaren "pairatzaile" sentitzen dira enpre-

## BEZ

Enpresa hornitzaileek Sunsundeguirako faktura luzatu diote. Ez dute kobratuko, baina faktura haien BEZa ordaindu beharko dute. Ilbeltzean Goikoetxea kontseilariak esan zien ordainketa hori egiteko arazorik izanez gero luzapena eskatzeko eta Ogasunak kasuguztiak aztertuko lituzkeela.

## Hornitzaileak

Sunsundeguirako denetarikoa lanak egin dituzten Iruñea, Gasteiz, Goierri, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Olaztiko enpresak.

sa hornitzaileetako ordezkariak: "ez dirurik ezta negoziarik gabegelditu gaitezke. Eta, gainera, zorrakin" esan digu haietako batek. Etorkizuna "beltz" ikusten dute. 3 ixtear leudeke 100.000tik gorako zorrak dituztelako kobratzeko.

## Galderak eta zalantzak Sunsundeguiaren inguruan

Langileek larunbatean, 18:00etan, Iruñean 58 enpresa batzordek enpleguaren alde deitutako manifestaziora deitu dute

Aurreko ostiralean Sodenak atzera bota zuen Sunsundegui zuzendaritzak eta UGTk eta ordezkari independenteak adostutako bideragarritasun plana. Kanpoko bazkiderik ez badago planak ez duela bideragarritasunik esan zuten Sodenako buru Montesek eta Valdiviesok. Bestela plana ez dela txarra adierazi zuten.

Sodenatik azaldu dutenez, "alternatibak badaude, duela hilabete bat baino gehiago, baina zaila da gauzatzea". Nafarroako Gobernutik adierazi zuten Sunsundegui ez diotela diru gehiago emanen. Eta alde guztiek "ahaleginak egin behar" dituztela azaldu zuten.

## Mobilizazioak

Sunsundegui langileek asteartean Sodenaren egoitzaren atean kontzentrazioa egin zuten, buruak

hornitzaileen ordezkariak batekin bilduta zeuden bitartean. Atzo Parlamentuaren aurrean kontzentrazioa egin zuten.

UGTn sinistu egiten dute proiektuak segitu dezakeela, "baina horretarako denbora behar da". Zuzendaritzak eta langileek azalduz konpromisoa nabarmendu dute, "arazoei baino konponbide posiblei erreparatu behar zaie".

ELAko ordezkariak ostiralean Lourdes Goikoetxea kontseilaria-

rekin bilduko dira. Zorra kenduta, normaltasun parametroetan eta gutxienekoarekin abiatuz enpresak bideragarritasuna duela eta errentagarria dela azalduko diote. "Ezin dute Sunsundegui itxi lan karga duenean eta negozio errentagarritasun aukera dagoenean". ELAtik bazkide posibleei Sodenak egin dien eskaintza zalantzan jarri dute. "Enpresa orain ixtea erabaki politiko hutsa da".

Ostiralekoa eta gero LABek

adierazi du Sunsundeguirako bazkiderik ez dela sekula existitu "eta Sodenak diru gehiago ez inbertitzeko erabakia 2012ko garagarri-laz geroztik hartua zuen". LABek garbi du dirua dela arazoa: "gobernuak ez badu inbertitzen dauden eskaerei ezin izanen diegu aurre egin eta enpresak bezeroak eta bolumena galduko ditu". LABetik adierazi dute, gobernuak iritzia aldatzen ez badu enpresak aurki itxi dezakeela.

ZERGATIK UKO EGIN CITROËNEN ESPERIENTZIARI?

DISKOEN, BALAZTA-PASTILLEN ETA CITROËN MOTELGAILUEN OPERAZIOA

%30 ordezko piezetan\*

www.citroen.es

CITROËN prefere TOTAL

(\* Promoziora atxikitako CITROËN zerbitzu ofizialetan eskaintza baliagarria. Indarrean dauden beste eskaintzekin ez metagarria. Kontratu kanpoko argazkia. Galdetu zure CITROËN zerbitzu ofizialean promozioan dauden piezen zerrenda.

2013/03/04TIK 2013/05/04RA.

CITROËN

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

## SAKANA

## Ibarraren berri Parlamentuan

Garapen ekonomikorako dituen proposamen eta aldarrikapenak azaldu dituzte

Atzo Garazi Urrestarazu (Altsasuko Alkatea), Gaizka Uharte (LAB sindikatua) eta Joseba Garmendia (Sakantzen sareko kidea eta UPV-ko irakaslea) Parlamentuko ekonomia, ogasun, industria eta enplegu batzordean izan ziren. Sakanaren egoeraren berri eman eta alternatibak emateko joan ziren Iruñera.

LABeko ordezkari **Gaizka Uhartek** Sakanaren egoera sozio-ekonomikoaren berri emateko hainbat datu eman zituen: langabeziarena, gizarte segurantzako afiliazioa, itxierak, elikagai bankuak banatutako jakiak... Sakanan 2.190 lanpostu suntsitu direla azaldu zuen, "dauden langabe-tuen kopurua baino altuago, inguruko eskualdeetako jendeak ibarrean egiten zuelako".

Panorama horren aurrean LABeko kideak enpleguaren suntsipena gelditzea eskatu zuen. Sakanaren beharretarako gizarte eta ekonomia eredu egokia beharrezkoa dela gaztigatu zuen Uhartek. Aldi berean, guztiek bizi duina bermatua izateko gizarte babesa indartzea eskatu zuen. Azkenik, ekonomi ehuna dibertsifikatzea proposatu zuen eta, horrekin batera, krisi mahaian adostutakoarekin ados agertu zen. Eta gogora ekarri zuen ibarreko bereko lan-tegi asko Sakanan bertan gelditu direla eta inbertitzen ari direla.

Altsasuko alkate **Garazi Urrestarazuk** ibarrean egoerari buelta emateko "elkarlanean, adostasun giro altuan" sortutako dinamiken eredu gisa jarri zuen krisi mahaia eta han adostutako puntuak. Orain arte Nafarroako Gobernuarekin izandako harremanak antzuek izan direla azaldu zuen eta "kola-



Parlamentuko agerraldiko une bat.

borazio marko sendo eta bilaterala sortzea" eskatu zuen. Bestetik laguntza eskatu zuen: plan estrategikoa dinamizatu eta idazteko; energia ikerketak egiteko; industria eremuen analisisa egiteko; eskualdeko agenda 21 ezartzeko eta garapen agentziak bere lana eta helburuak betetzeko.

Alkateak udal bizi duten egoera aipatu nahi izan zuen. "Nafarroako Gobernutik zetozen finantziario iturriak murrizten edo desagertzen ari dira. Ondorioz, udalak gara gure baliabide murriztekin finantziario falta hori gure gain hartzen ari garenak". Elkarlanerako eskaintza luzatu du.

## Sakantzen Sarea

Haren izenean **Joseba Garmendiak** hartu zuen hitza. Sarea zer den eta bere ibilbidea errepasatu zuen. Tokiko garapena indartzeko ahalgina egiten ari direla nabarmendu zuen Garmendiak. Eta zehaztu ere tokiko garapena prozesu ekonomikoa baino prozesu soziala eta politikoa dela. Adostasun zabaletan oinarritutako tokiko garapen

estrategien alde agertu zen Garmendia, behetik gorakoak, beti ere.

Tokiko garapena errazteko erakundearen egituraketaz hausnartu beharra dagoela gaztigatu zuen sareko kideak. Sakanarako plan estrategikoa modu parte-hartzaile batean egiteko asmoa aurreratu zuela. Eta ibarra dinamizatzeko motoreak sortzearen garrantzia azpimarratu zuen. Horretarako, aurrera egiteko laguntza eskaera egin zuen eta ezinbesteko jo zuen Nafarroako Gobernuaren eta Sakanako eragileen arteko erlazio "normala eta naturala".

Irakasleak parlamentariari ohartarazi zien Sakanan paradigma aldaketa bat eman dela: "orain gutxira arte pentsatzen zen gure konponbidea zela Nafarroako Gobernuari eskatzea eta kanpotik presak ekartzea. Paradigma aldatzen ari da. Sakandarrok eta Sakanako erakundeak barneratu dute haiek direla bere etorkizunaren jabe eta arduradun. Noski, beraiek bakarrik ezin dute, eta horregatik gaude hemen".

+www.guaixe.net

## Altsasu

## Luceñok udala utziko du

Kargua eta udal-langile izatearen bateragarritasun ezak ezeroso sentiarazi du

Gaur, 18:00etan, Altsasuko Udalak Santi Luceño Arias zinegotziaren uko egitearen berri jasoko du. Horrekin batera, hautetsi berriaren egiaztatze-gutuna eskatzeko prozedura abiaraziko du. Luceñoaren uko egitearekin eta PSNko bi zinegotziren faltarekin (batek dimititu zuen, bestea gaixo dago) udalean 13tik 10 zinegotzi gelditzen dira: Bilduko 4, Geroa Bai 2 eta Uko, UPNko, PPko eta Aralarko bana. NaBairen zerrendan hurrengoak Iñaki Migel eta Cristobal Lanz dira. Lehena Aralarko zinegotzia izana, bestea, EAJkoa. Bata edo bestea sartu, kasu batzuetan udal bozketen emaitzak batera edo bestera alda litezke.

Luceño NaBaiko zerrendan aurkeztu zen hauteskundeetan. Atabo udal enpresako langilea da eta zinegotzi kargua hartzea bateragarria ez zela azaldu zuen. Ordu tik lanpostuari zegokion soldata kobratzen egon da, baina zinegotzi lanetan jardun du. Toki Administrazio Departamenduen txosten batek berretsi du udal-enpresako lanpostua eta zinegotzi kargua ez direla bateragarriak.

## EZEROSO

Luceñok adierazi digunez, "legegintzaldi hasieratik ez naiz batere erosentitu nire bateragarritasun gaigatik". Horrekin oso gaizki sentitu izan dela aitortu digu eta gehiagoez inzulako uko egitea erabaki du. "Herriaren alde lan egin nahi nuen. Nire posibilitateen barruan, ahal dudana guztia egiten saiatzen ari naiz. Baina une honetan udalarendako karga bat naiz".

Egiteko gauza asko utzi dituela aitortu digu Luceñok. "Sartu nintzen nean ez nuen ideiarikere, baina gauzak egiteko gogoz sartu nintzen". Emakumearen batzordeko buru izandakoa Nafarroako Gobernuarekin oso kritikoa azaldu da: "proiektuak ditugu, baina ekonomikoki ez digute batere laguntzen. Zer egin daiteke horrela? Aspaldi udalak bere bizkar hartutakoak, gainontze-koak aztertu beharko dira". Udalean egindako lanaz galdetuta esan digu nahiko etsigarria dela. Burokraziaren moteltasunaz kezu azaldu da. +www.guaixe.net

## barrutik kanpora

## Pentsio igoeren iruzurra

Ia-ia oparizat salduzuten %1a jaso zizkigutela pentsioak, ez zegoela murrizketarik. Baina egia erdia gezur bihurtzen du iruzur den beste erdiak. Gure ahalmen ekonomikoa gero eta murriztagoa dela da isildutako beste egia erdi hori: bizimailak gora egin du: %4,7 galdu dugu 2 urtetan soilik, zergak jasotzen dituzte, alargun-saria hutsala da... eta honek ez du bukarerarik. Botikak berrordaintzera behartzen gaituzte, inoren behar bizi direnentzat laguntasuna murriztu dute, gaixo kronikoen egoerak okerrera egin du, mediku itxaronaldiak luzatuz, larrialdietarako baldintzak larrituz, guardia zerbitzuak kenduz eta egonaldiak murriztuz doaz: honek guztiak zuzenean eragiten digu, adin handiak areagotu egiten baitu osasun arriskua.

Pobreziaren marrantik behera bizi da jubilatuena gehiengo. Ezin duela inork 1.100 euro baino gutxiago jasotze adituak. Oinezko gara, xumeenok, krisia bizien pairatzen dugunok, horien artean pentsiodun eta jubilatuak. Zerbait egin beharra dugu. Inork ez dizkigu babak eltzetik aterako. Guk geuk egin behar diogu aurre. Ezin dugu onartu porrotik. Onartuz, are gehiago hondoratuko gaituzte. Salatzen ez badugu, errukirik gabe gehituko dituzte murrizketak. Zer egin? Askogara. Alboratu egin behar dugu gure erosotasuna, defenda ditzagun gure duintasuna eta lanarekin irabazi genituen gure pentsioak. Gure ahotsa entzunarazi, bizipen eta iritziak trukatu, lagunekin, albokoarekin hitz egin, egoera salatu, gure haserreka kalera atera. Bat egin dezagun, jubilatu eta pentsiodunok geure artean, eta guztiaren solidario, beste sektore zapaldu guztiaren.

**sasoa**  
nafarroako jubilatuena elkartea  
asociación de jubilados de navarra

## Arbizu

## Emakume baserritarren bilkura

Euskal Herriko emakume laborari eta baserritarrak batu, ezagutu, elkarrekin hitz egin, ikasi, erakutsi eta aurrera egiteko helburuarekin

antolatu dute aurten ere Etxalde mugimenduko emakumeek Zientzia eta Teknologia foroa. Arbizuko eko-kanpinean atzo eta gaur bilduko direnak baserri munduko ezagupenak, tresnak, molde berri eta zaharrak, kontakizunak eta beste elkartrukatuko dituzte.

"Erosi eta saltzen ez den zientzia eta teknologia aldarrikatuko ditugu Arbizuko topaketa honetan". Belaunaldiz belaunaldi, eta baserriz baserri landu den jakintzaren gainean arituko dira bi egunez. Haien ikerketa eta garapen (i+g) prozesu propioa egiteko asmoa dute.

Erabiltze instrukzioak

Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

**FLORES S.L.**

txistor ekologikoa

Urtzubar industrialdea - Rf. - Faxa: 948 460 499 - 41603 24

**BUJANDA**  
okindegia

**bai**

Tel.: 948 467 503  
Kale Nagusia 31, OLAZTI

**GANUZA SUKALDEAK**  
SUKALDERAKO ALTZARIAK

Bainu gelako altzariak  
Horma armairuak  
Elektragailuak

**GANUZA GARANTIAREKIN**

Tel.: 948 460 203  
faxa: 948 460 673  
Etxarriko industrialdea  
ETXARRI-ARANATZ

**PPSOE,**

**ETB**  
**digitala**

**Nafarroan orain!**

**Berria erosi taldea**



MENDI TXIRRINDULARITZA

OTXOA ETA IRIGOIEN RURAL KUTXA BTT

KOPAN: Igandean hasi zen Rural Kutxa BTT

Kopa, Izkuen. Patxi Cia izan zen garailea

(1:39:07). Mikel Otxoa 8.a izan zen

(1:55:28) eta Mikel Irigoien 43.a (2:01:05),

23 urtez azpikoan 8.a eta 4.a, hain zuzen.

kirola &gt;&gt;

## Atletismoa

Emakume sakandarrak  
24. Lilatoian

Sakandarrak Lilatoian

1.	Elena Silvestre	17:48
93.	Erkuden San Martin	22:51
139.	Mari Gwen Davies	24:02
208.	Haizea Ramirez de Alda	25:10
649.	Orreaga Zubeldia	28:21
652.	Amalia Berastegi	28:23
1073.	Nuria Pozueta	30:29
1074.	Isabel Pozueta	30:30
1492.	Nerea Berastegi	32:10
1496.	Maitane Txueka	32:10
1497.	Mayra Palop	32:10

Igandean 24. Lilatoia jokatu zen, Donostian (5 km). Martxoaren 8aren inguruan antolatzen den emakumeen lasterketa honen edizio jendetsuena izan zen aurtengoa, izan ere 2.691 emakume iritsi ziren helmugara. Elena Silvestre terueldarra izan zen azkarrena (17:48). Sakandarren artean Erkuden San Martin etxarriarra izan zen azkarrena (22:51, 93.a).

## Mendi lasterketak

Beraza 15.a  
Zuzenien proba bertikalean

Sakandarrak Zuzenien proba bertikalean

1.	Iñigo Lariz (Elgoibar)	31:00
15.	Jose Luis Beraza (Uhartea)	35:40
22.	Aritz Munariz (Etxarri)	36:26
30.	Iñaki Martiarena (Uhartea)	37:28
48.	Jose Javier Maiza (Etxarri)	39:38
62.	Alatz Agirre (Arbizu)	41:11
76.	Mikel Berastegi (Arbizu)	42:27
86.	Iraitz Senar (Lakuntza)	43:53
113.	Borja Gonzalez (Altsasu)	48:21

Igandean hasi zen Open Lafuma-Euskal Herriko Proba Bertikalen 2013ko Zirkuitua, Azpeitian jokatutako Zuzenien mendi lasterketa bertikalarekin (2,8 km, 804 metroko desnibela). Korrikalariak bana-bana ekin zioten probari, epaileek euren lana erlojupeko moduan neurtuz. Azkarrena Iñigo Lariz elgoibarra izan zen (31:00) eta lehen sakandarra Jose Luis Beraza uhartearra (35:40). Zirkuituko hurrengo proba irailaren 22an jokatuko da: Uhartea Arakil-Berriaren proba.

## Duatloia

Bi Urko sakandarrak  
bikain Eibarren

Berdud 23 urtez azpiko onena eta Peñagarikano kadete onena

Sakandarrak Eibarko 22. Duatloian

1.	Oier Ariznabarreta	1:00:43
20.	Urko Berdud	1:01:58
	(lehen 23 urtez azpikoa)	
49.	Fco. Javier Gomez	1:05:01
92.	Mikel Berdud	1:08:03
140.	Urko Peñagarikano	1:13:37
	(lehen kadetea)	

Larunbatean Eibarko 22. Duatloia jokatu zen (5 km korrika, 24 km bizikletan eta 2,5 km korrika). 200 duatletabainogehiago arituz ziren, eta azkarrena Oier Ariznabarreta durangarra izan zen (1:00:43). Sakana Triatloi Taldeko kideak bikain aritu ziren.

## Automobilismoa

3, 2, 1, 0... Olazti-Urbasa  
Rallysprinta jokoan!

Guaixeren aldeko I. Olazti-Urbasa Rallysprinta jokatuko da bihar, martxoaren 9an, larunbatean, Sakana Motorsportek antolatuta. Proba 14:00etan hasiko da, baina errepidea 10:00etan itxiko da.

Sakana Motorsportek antolatuta, bihar, martxoaren 9an, I. Olazti-Urbasa Rallysprinta jokatuko da, denboraldiko Nafarroako lehendabiziko proba eta Nafarroako Rallysprint Txapelketarako proba puntuagarria izanen dena. Errepidea goizeko 10:00etan itxiko da, eta proba 14:00etan hasiko da.

## 5,5 km-ko zirkuituari lau itzuli

Antolakuntzak 5,5 km-ko zirkuitu polita antolatu du, Olazti herri gunean hasi, Urbasako Altamiraraino igo, Altsasurantz bideetik jaitsi eta Olaztiraino helduko dena, bihurtuz, aldapaz eta zailtasun tekniko maniobrez josia. Zirkuitu horri 4 pasada egin behar ko dizkiote pilotu eta kopilotuek. Tarte labur horretan denetarik dago: bidegurutzak, aldapak, espaloiak, maldak edo rasanteak, chicaneak... Gainera, Urbasako beti erakartzen du, eta Altamirako jaitsiera proba jarraitzeko toki oso polita izanen da, autoak azkar ibiliko baitira. Beste toki interesgarria, zalantzarik gabe, Olazti herri gunea bera da, bertatik pasako baitira ibilgailuak.

## 33 auto, tartean sakandarrak

33 auto lehiatuko dira I. Olazti-Urbasa Rallysprintean, parte hartze oso polita, puntako pilotuak tartean. Faboritoen artean Aingeru eta Angel Castro (BMW M3) aipa daitezke. Sakandarrak ere ariko dira: Garikoitz Goñi-Ricardo Garriz (Renault R11 Turbo), Joseba Aldaz-Iker Askargorta (Peugeot 205), Arkaitz Irigoien-Oier Larrañaga (Renault R11 Turbo), Javier Goikoetxea kopilotua Juan Jose Sanz pilotuarekin (Renault Clio) eta Eneko Aristu kopilotua Iñigo Etxarte pilotuarekin (Citroen Saxo). Sergi Ondarra pilotu bakaikuarra 0 auto bikoitzean joanen da, eta Iban Lopez de Goikoetxea pilotu olaztiarra 0 autoan.

Segurtasuna bermatzeko  
egin kasu antolatzaileei

Puntako ikuskizunak jendetza erakarriko duela uste du antolakuntzak. Eguraldi iragarpenak ez du euririk aurrekusten eta zale ugari espero dira Olaztin. Proba gertu jarraitzeko aukera izango dute, antolakuntzak horretarako propio prestatutako eremuetan. Hortik kanpo ez kokatzeko deia egin du



Zirkuitu ikusgarrian 33 autoren maniobreakin gozatu ederra hartzeko aukera izanen da Olaztin.

Sakana Motorsportek. "Segurtasuna ezinbestekoa da. Kotxe karre-razari gara. Horregatik antolakuntzari eta segurtasun taldeari kasu egin behar zaio" nabarmendu dute. Halaber, ibilbide barruan ez aparkatzea eta norberak bere zaborra gordetzea, Urbasa parke naturala baita, eskatzen dute.

Ikusleek 12 sarrera izango dituzte proba guztian barna: Irteera (Ameztia kalea), El Cielo taberna gunea, udaletxea, Santa Ana, igerilekua, Erburua kiroldegia (2. eremu), San Sebastian ermita, harrobi bidea, Altamira, Valcarce gasolindegia eta helmuga (Altamiratik jaitsi eta errepidearekin bat egiten duen eremua). Hortik sartu eta ibilbidean koka daitezke, antola-

kuntzak zehaztutako espazioetan.

## Ikuskizunarekin gozatu

Nahiz eta lehendabiziko autoa 14:00etan atera, goiz goizetik zer ikusi egongo da Olaztin. Ez da arazorik izango autoz Olaztiraino joateko, baina aparkatzeko orduan ere kasu egin behar ko zaio antolakuntzari. Clinker aurreko futbito pistan bilduko dira ibilgailu guztiak, egiaztapenak pasatzeko eta joan-etorri handia izango da. Handik bana-banaka joango dira irteera eremura (Ameztia kalea). Giroa lehen ordutik bermatuta dago. Ongi pasa, inguru-nea zaindu, segurtasun arauak errespetatu eta motor ikuskizunaz gozatu!

Jasotakoa Guaixe  
eta Beleixerendako

Sakana Motorsportek Guaixe eta Beleixe Sakanako euskal komunikabideen alde egin nahi izan du. Horrela, komunikabide horiek sustatzen dituen Bierrik fundazioarendako izango da Olazti Urbasa Rallysprinteko sarreraren kobratuko den dirua (helduak 5 euro, haurrak doan). Trukean Bierrik fundaziokokideek sarrera kobratuko dute eta rallysprintaren garbiketa lan guztia egingo dute, larunbatean eta igandean. Norbaitek lagundu nahi badu, dei dezala 948 564 275ra edo jo dezala bierrik@guaixe.net-era.

I. Olazti-Urbasa  
Rallya. Ordutegia

08:00etatik 12:00etara: Ibilgailuen egiaztapen tekniko eta administratiboak eta ibilgailuen aurkezpena Clinker aurreko aparkaleku itxian.

13:00etan: Probara onartutako kotxeen zerrendaren publikazioa.

13:30ean: Lehen parte-hartzaileak aparkaleku itxitik aterako da asistentzia parkerantz.

14:00etan: Lehen parte-hartzailearen irteera, irteera gunetik.

20:40etan: Lehen parte-hartzailearen helmugaratzea.

21:30ean: Emaizten publikazioa eta sari ematea Clinkerren.

## I. Guaixe Saria lehen sakandarrarendako



Miren Ustarroz eskulturagile uhartearrak diseinatu du I. Guaixe Saria, zurezko eta marmol txuriko eskultura ederra. Gupil baten zati baten itxura du. Sari hori jasoko du I. Olazti-Urbasa Rallysprintean sailkatzen den lehen pilotu sakandarrak.

Horretaz gain, rallya jarraitzera gerturatzen diren zale guztien artean Irurtzongo Plazaola Hotelean 2 lagunendako bazkaria zozketatuko da. Sarrera ordaintzearekin batera flyerra jasoko dute ikusleek, bakoitzak zenbaki bat duela. Zozketa egiten denean, zenbaki horri egin behar ko zaio kasu.

Aizkora

Nazabali ihes egin dio lehen txapelak

Binakako Urrezko Aizkorako finala:	
1. Joseba Otaegi - Unai Otaño	24:24
2. Floren Nazabal - Joxe Angel Zubiaga	25:37

Joseba Otaegik eta Unai Otañok lortu zuen Urrezko Aizkorako txapela janztea, merezimendu osoz, igandean Azpeitian jokaturako finalean. Azken probara, iraupen probara, 18 segundoko abantailarekin iritsiziren Nazabal eta Zubiaga, baina Otañok eta Otaegik ia zergatik irabazi zuten argi utzi zuten, jaun eta jabe izan baitziren, iraupen lana 12:22 denboran eginez. Aldiz, Nazabalek eta Zubiagak 13:53 behar izan zituzten. Denbora guztiak batuz minutu bat eta 13 segundoko alde batera zieten txapelak Nazabali eta Zubiagari. Zubiaga izan zen gainontzeko hirurak baino ahulago ibili zena, iraupen proban bereziki. Nazabal ongi aritu zen, baina ez zen nahikoa izan. Etxarriarrari hobe doazkio banakako txapelketak binakakoak baino. Beste batean izango da.

Txirrindularitza

Burunda eta Aralar taldeen aurkezpena

Larunbatean egin zen Sakanako bi txirrindularitza taldeen aurkezpena. Aralar taldeak Irurtzungo Kultur Etxea aukeratu zuen eta Altsasuko Iortia Kultur Gunea Burundak. Aralar taldea 31 txirrindularien inguruan sortutako familia handia da. Adierazi zuten, horrela hobeto egiten zaio aurre txirrindularitzak eskatzen duen sakrifizioari. "Txirrindularitza kirol sakrifikatuena da. Sakrifizioa zer den erakusten du, bizitzari aurre egiteko ezinbestekoa dena, finean" nabarmendu zuen aurkezlaria lanak egin zituen Martin Juanenak. "Entrenatu eta sakrifikatu. Ondoren etorriko dira emaitzak" ondorioztatu zuen. Burunda klubean ere kontentuen zuden taldean 57 txirrindulari daude, lako eta oinarria badagoelako. "Hori da inportanteena" nabarmendu zuten. Afizionatuei dagokienez, amateur tropeleko talde indartsuena da Burundakoa, eta oso gaztea. "Gaztetasunaren eta formazioaren alde egin dugu" azpimarratu zuen Juan Manuel Hernandez managerrak. Dagoeneko 3. postu bat badute (ikus azpiko informazioan). Hurrengo bi orrietan talde argazkiak daude ikusgai. Zorte onena opa diegu bi taldeei.

GRIJALBA HIRUGARRENA EREÑON

Igandean Lehendakari Txapelketarako baliagarria zen proba jokatu zen Ereñon. Naturgaseko Loic Cheout izan zen lehena, bere taldeki Imanol Estevezi segundo bat aterata. Rural Kutxa talde sakandarreko Fernando Grijalba hirugarrena izan zen, 3 segundora. Rural Kutxa-k Rubio 6.a sailkatu zen, 14 segundora eta Salas 7.a, 31 segundora.

Pilota

Irujo-Zabaleta lider eta Ezkurdia-Zubieta hil ala bizi

Binakako Txapelketa. Puntuazioa	
9 puntu:	Irujo-Zabaleta
8 puntu:	Bengoetxea VI-Beroiz
7 puntu:	Olaizola II-Ibai Zabala
5 puntu:	Titin III.-Merino
4 puntu:	Ezkurdia-Zubieta
Berasaluzeko VIII-Albisu	
Xala-Barriola	
3 puntu:	Arretxe II-Begino

Binakako Txapelketa. 12. Jardunaldia jokoan

Titin-Merino / Ezkurdia-Zubieta (larunbatean, 18:00etan, Etxebarrin)  
 Berasaluzeko VIII.-Albisu / Irujo-Zabaleta (igandean, 17:00etan, Eibarren. ETB1)



Zabaletak primerako debuta egin du.

Binakako Pilota Txapelketako hasierako ligaxka despeditzeko 3 jardunaldiren faltan, bi biko dagoeneko sailkatuta daude finalerdietarako: Irujo-Zabaleta eta Bengoetxea-Beroiz. Olaizolak eta Zabala ia hanka bat barruan dute (7 puntu), baina benetako guda laugarren bikotea nor izango den erabakitzean dago. 5 bikote daude aukerekin: Titin-Merino (5 puntu) eta 4na puntu dituzten Ezkurdia-Zubieta, Berasaluzeko VIII-Albisu eta Xala-Barriola.

**Zabaleta behetik gora**  
 Irujo eta Zabaletak sekulako jipioia eman zieten Olaizolari eta Zabalarari, Asegarcekoak 11 tantotan utziz. Bereziki Irujo ibili zen fin; Irujoren bertsio onenaz gozatzeko aukera izan zuten zaleek. Zabaletak, bere partetik, behetik gora egin zuen. Urduri hasi zen etxarrendarra, partidaren ezintasut, baina Irujo laguntza paregabea eman zion, pilota asko kenduz eta etxarrendarra babestuz. Horrela, Zabaleta partidaren sartu zen,

Ezkurdia-Zubieta irabaztera behartuta

Ezkurdia eta Zubietak finalerdietarako sailkatzeko aukerak badituzte oraindik. Horretarako Titinen eta Merinoren kontra bihar jokatu beharreko lehia irabaztera derrigortuta daude. Irabazten badute, 5. puntu lortzeaz gain, sailkapenean Titin eta Merino gaindituko dituzte, averagea kontuan hartuta. Bestetik, Irujo eta Zabaletak Berasaluzeko VIII-Albisu menpean hartzen badituzte gauzak erraztuko dizkiete Ezkurdiari eta Zubietari. Oraindik txapelketa egon, badago.

lehia aurrera joan ahala maila bikaina emanez eta pilotari sekulako zartadak emanez, hiru pilotak erreboteraino bidaliz. Bestalde, Ezkurdiak eta Zubietak 22-17 galdu zuten Berasaluzeko eta Albisuren kontra. Berasaluzeko Ezkurdia baino hobeto aritu zen aurreko koadroetan, eta atzean Aitor ez zen beste batzuetan bezala aritu. Bukaeran, sakandarrak berdinduko zutela zirudienean, akats potoloak egin zituzten eta hor joan zitzaion partida.

Herri kirolak

Nafarroako Herri Kirol Jokoak Altsasun

**Txapelketako 3. Jardunaldia Altsasun jokatu da, igandean, 11:00etan, Iortia plazan**

Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako Herri Kirol Jokoen 2 jardunaldi jokatu dira dagoeneko. Altsasuko 3. jardunaldia hartuko da igandean, goizeko 11:00etan, Iortia plazan (eguraldi txarra eginenez gero Burunda pilotalekuan). Sakantatik ondoko taldeak ari dira lehian: Andra Mari ikastola, Putte-

rrri (Andra Mari ikastolako aere) eta Iñigo Aritza ikastola, kategoriaz ezberdinetan lehiatuz.

**2. jardunaldiko emaitzak**  
 Aurreko igandean 2. jardunaldia hartu zuen Beteluk. Kimuen mailako proba konbinatuan Andra Mari nagusitu zen (7:14), Putterri 3.a izan zen (7:31) eta Iñigo Aritza 5.a (7:45). Haur mailako proba konbinatuan Berriozar gailendu zitzaion (8:49)

Andra Mari 2.ari (10:20). Iñigo Aritza 4.a izan zen (10:46) eta Putterri 5.a (11:04). Eta kadete mailako proba konbinatuan Basaburuak irabazi zuen (9:55). Andra Mari 3.a sailkatu zen (11:14). Sokatiran haur mailan (480 kg) Iñigo Aritza izan zen lehena (5 puntu), Andra Mari 2.a (4 puntu) eta Putterri 5.a (puntu 1). Kadete mailan (540 kg) Andra Mari eta Berriozarrek 2,5 puntutara berdindu zuten.

Neguko triatloia



**Olaztikiko Sutegi, Neguko Triatloi Txapelketako txapelak. Izbak Euskadi eta Nafarroako Neguko Triatloi Txapelketa hartu zuen igandean. Proba ikusgarria izan zen. Parte-hartzaileek 8 km osatu behar zituzten korrika Izabako kaleetan barna, Izaba eta Belagua artean txirrindulaz 22 km osatu, eta Belaguan 10 km-ko ibilbidea osatu, ipar eskiekin. Proba indibidualean Raul Roda eta Alba Xandri gailendu ziren, baina erreleboetan sakandarrak izan ziren protagonista. Olaztikiko Sutegik ondoko taldea aurkeztu zuen erreleboetarako: Raul Audikanak 8 km-ko atletismo proba egin zuen, Iñaki Garmendiak bizikletako eremua eta Xabier Zaballok ipar eskieko. Txapelak izan ziren olaztiarrak, merezimendu osoz. Argazkian olaztiarrak podiumaren gorenean. Zorionak!**

ESPAINIAKO KLUBEN ARTEKO PILOTA TXAPELKETA

Altsasu eta Irurtzun txapeldunorde

Igandean Espainiako Kluben Arteko Pilota Txapelketa jokatu zen Imar-koainen. Buruz burukoan, Irurtzun taldeko Xuban Armendarizek Madrid taldeko Imanol Arrese izan zuen aurreri. Lehenengo jokoan Xuban nagusitu zen (10-8), bigarrenean Madrilek berdindu zuen (5-10) eta hirugarrenean Imanol Arrese izan zen garaile, 1-5, txapela lortuz. Eskuz binakakoan Julen Hernandez Altzelaik eta Arkaitz Peñasek (Altsasu) ezin izan zuten txapela jantzi. Uhar-te Iruñearen kontrako finalean, Eneko Yoldi eta Iosu Linzoain bi jokoa nagusitu zitzaizkien altsasuarrei (10-2 eta 10-2). Beraz, Irurtzun eta Altsasu txapeldunorde.

ANSOTEGIK YOLDI AURKARI SORALUZETAKO FINALEAN

Soraluzeko lau 1. erdiko finalerdietan Jon Ansotegi etxarriarrak 7-22 hartu zuen menpean Erik Jaka eta Eneko Yoldi 22-2 irabazi zion Paul Ojueli. Ansotegik eta Yoldi kasteartean jokatu kodute finala, 19:30ean, Soraluzen.

Futbola

3. MAILA 27. JARDUNALDIA

**MUTILBERA 2 - LAGUN ARTEA 1**  
 Lakuntzarrek oso ongi presionatu zuten liderra. Laguneko Xabik zelai erditik berdindu zuen baina lakuntzarrek gol aukerak ez zituzten gehiago aprobeztatu. Aldiz, Mutilberak 2 gola sartu zuen.

Sailkapena >>	
1. Mutilbera	57 p
12. Lagun Artea	35 p

Asteburuko jardunaldia LAGUN ARTEA - BURLADES (Igandean, 16:30ean, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA 4. multzoa 22. JARDUNALDIA

**ETXARRI ARANATZ 0 - SAN JUAN 2**  
**ALTSASU 1 - AURRERA 1**  
 Gol aukerak ez zituen borobildu Etxarrik. Jokalari bat gutxiagorekin geratu zen eta egoera baliatu zuen liderrak, 2 gol sartzeko. Bestalde, nahiz eta Rubiori esker markagailuan aurreratu, penalty bati esker berdintzea lortu zuen Aurrerak.

Sailkapena >>	
1. San Juan	58 p
9. Etxarri Aranatz	22 p
10. Altsasu	21 p

Asteburuko jardunaldia AURRERA - ETXARRI (Larunbatean, 17:30ean, Leitzan) BURLADES - ALTSASU (Larunbatean, 18:00etan, Burlatan)

Areto futbola

OHOREZKO MAILA 18. JARDUNALDIA

**TRIMAN NAV. XOTA 4 - EL POZO 8**  
 Sailkapena >>  
 1. Bartzelona 43 p  
 5. Trimán Navarra Xota 33 p

19. jardunaldia (bihar, larunbatean, Altsasun) GALTAR - TRIMAN NAVARRA XOTA (Larunbatean, 19:30ean, Kanariar Irletan)

SAKANAKO TXAP. - IKER KIROLAK

Sakanako 22. Areto Futbol Txapelketa-Iker Kirolakeko 3. Itzulia dago jokoan.

14. jardunaldia (bihar, larunbatean, Altsasun)  
**ASS APPLE - AUZOMOTOJORIK**  
**PIPEROXKI - PATINTER**  
**AREZPE - BILTOKI**



GRUPO TANATORIO  
**IRACHE**  
TANATORIO TALDEA

**948 19 70 70**

[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



**Joxe Ignazio Gurutxarri Lakuntza**

Zuk erakutsitakoa, zu umorie ta poztasuna, betirako gure oroimenean eta bihotzean.

Eskerrik asko guztiagatik.

**Kixuxkillana**




**Jose Ignacio Gurutxarri Lakuntza**

Itsasogaindik ikusten baduzu gure gogoan daraman ontzia ez zazu pentsa galduta doanik argitzen baitu goizeko eguzkia.

Eskerrik asko elkartasuna eta laguntza eman diguzuen guztioi.

**Zue familiye**



**Joxe Ignazio Gurutxarri Lakuntza**

Goian bego

**Zure emaztearen lankideak**

Etxarri Aranatzen, 2013ko martxoaren 6an.



**Josinazio Gurutxarri**

Joan zarenetik  
Beti gara gutxiegi  
Eta beti zarete gehiegi.

**Zure lagunak**



**Oroigarriak egiten ditugu**

Nahi duzun argazki eta testuarekin

**GUAIXE KOMUNIKAZIOA**  
948 564 275  
Foru plaza 23-1  
Altsasu  
[argi@guaixe.net](mailto:argi@guaixe.net)



**Josinazio Gurutxarri Lakuntza**

Ez nau izutzen negu hurbilak uda betezko beroan dakidalako irauten duela orainak ere geroan.

**Lizerrako Gaztiek**



**Gorka Larrea Ondarra**

Beti zaude gurekin baina zein zaila den zu gabe bizitzea

**Zure familia**

Bakaiku

Familiaren partetik mila esker lagun guztiei.

**Joxe Ignazio Gurutxarri**

Gure izatearen testigu zuzena makurtu gabeko zuhaitz sendoa desertuko haizeak lehortu ez duen lorea itsasoaren kolorea, hor zaude zu.

**Ttonttoneko fameliye**

**Hugo Chavez**

“A quienes desean mi muerte, les deseo vida. Así verán como la revolución bolivariana continua avanzando victoria tras victoria.”

(Hugo Chavez)

Gora iraultza bolivartarra!

**Askapena**

**JAIOTZAK**

- Amets Larraya Muñoa, otsailaren 25ean Altsasun.
- Martxel Oizartabal Eskisabel, otsailaren 26an Altsasun.
- Migel Lizarraga Olaetxea, otsailaren 28an Irurtzunen.
- Eman El Goumri, otsailaren 28an Irurtzunen.

- Jon Salinas Andueza, martxoaren 1ean Lakuntzan.

**HERIOTZAK**


- Emilia Oroz Arriola, otsailaren 19an Etxararrenen.
- Jose Ignazio Gurutxarri Lakuntza, otsailaren 28an Lizarragan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu.

Bidai mezua [zorion@guaixe.net](mailto:zorion@guaixe.net) -era edo hots egin **948 564 275** telefonora.

Hainbat aukera. Galdetu 948 564 275



# Aralar, txirrindularien familia



**Aralar, 31 txirrindularien familia.** Familia handia osatzen dute taldea osatzen duten 31 txirrindulariek, teknikoeak, presidenteak eta gurasoek. "Hori da gure balio handiena, zalantzarik gabe, txirrindularien atzean dauden gurasoak. Nahiz eta iaz oso emaitza onak izan, irabazteak edo galtzeak berdin du. Inportanteena denok elkarrekin egotea da. Eta hori asko nabaritzen dute neska-mutikoeak" nabarmendu zuen Javier Etxarri presidenteak. Duten giro hori arnasten eta ikusten da. Klubak esker oneko hitzak izan zituen babesleekin, Irabia Intersportekin bereziki. "Migel Cavodevillak esana digu bera bizirik dagoen bitartean gure babesle izango dela" eskertu zuen Etxarrik. Taldeak 40.000 euro inguruko aurrekontua izanen du. "Orain gogor entrenatzera. Izan zaitezte zoriontsuak bizikletan. Biharko egunean eskertuko dizue" eskatu zien presidenteak. Zoriondu zituen "kirol gogor eta eder hau aukeratzegatik".



**Jubenilak. Irabia Intersport taldea.** Odei Juango, Pablo Villar, Adur Etxezarreta eta Asier Olo. Zuzendaria: Iñaki Migel eta Iraitz Goñi.



**Kadeteak. Irabia Intersport taldea.** Txirrindulariak: Izai Mauleon, Jon Alexis Cabrera, Unai Zubiria, Gorka Arbizu, Patxi Lopez, Xabier Maiza, Oier Larunbe, Eneko Unanua, Julen Iriarte eta Luis Beraza. Zuzendariak: Juan Ignazio Maiza, Xabier Lizarraga eta Iñaki Mauleon.

## Aralar Txirrindularitza Kluba

**Presidenteak:** Javier Etxarri.  
**Presidenteordeak:** Juan Ignazio Maiza.  
**Idazkaria:** Iraitz Goñi.  
**Diruzaina:** Mitxel Larunbe.  
**Bokala:** Xabier Lizarraga.

## Antolatutako lasterketak

**Eskolak:** ekainaren 8an Lekunberrin, ekainaren 15ean Etxarri Aranatz eta abuztuaren 3an Lakuntzan.  
**Kadeteak:** abuztuaren 7an Etxarri Aranatz.  
**Masterrak eta beteranoak:** ekainaren 16an Arbizun.  
**Afizionatuak, eliteak eta 23 urtez azpikoak:** abuztuaren 28an Lakuntzan.



**Eskolak. Irabia Intersport taldea.** Txirrindulariak: Jon Erdozia, Maria Beraza, Aimar Tadeo, Anitz Larunbe, Sergio Romero, Igor Arrieta, Unax Ijuria, Aitor Cabrera, Mikel Martinez, Joseba Huarte, Xabier Mauleon, Aitor Alberdi, Amaior Arratibel, Johana Irastorza, Urko Gorriti, Alain Alberdi, Javier Michaus, Beñat Etxezarreta eta Julen Otxoteko. Zuzendariak: Mitxel Larunbe, Javier Etxarri eta Patxi Irastorza.

# Burunda, etorkizuna lantzen



**Burunda, 57 txirrindulariko talde sendoa.** Kontentu daude Burundan, junior taldea ateratzea lortu dutelako eta hasi berrietan 15 txirrindulari daudelako. "Oinarria dago, eta hori da inportanteena" adierazi zuen Pablo Jimenez presidenteak. Erronka txirrindulariak sortu, hezi eta trebatzea da. 291 bazkide ditu klubak eta 26.000 euroko aurrekontua, afizionatuen kontuan hartu gabe. Udal, entitate eta komertzioen babesagatik "oso eskertuta" daudela adierazi zuten. Afizionatuei dagokionez, Rural Kutxa tropeleko talde indartsuenetakoa da, erreferentea, profesionaletarako salto egiteko tranpolina. Oso talde gaztea da aurtengoa, 20,7 urteko batez bestekoa duena. "Garaipenak ez dira garrantzitsuak. Inportanteena da txirrindulariak trebatzea, ofizioa ikas dezatela" aipatu zuen Hernandez managerrak. Laz 27 garaipen lortu zituen Rural Kutxak, eta taldearen helburua ahalik eta emaitza onenak lortzea da.



**Kadeteak. Quesos Vasco-Navarra, Quesos Albeniz taldea:** Aritz Irigoien, Eneko Aramendia, Josu Gabirondo, Alex Unzilla, Eneko Vilar eta Asier Juanez. Teknikariak: Tomas Martinez.

## Burunda T. T.

**Presidenteak:** Pablo Jimenez  
**Presidenteordeak:** Juan Manuel Hernandez  
**Idazkaria:** Jose Antonio Imaz  
**Bokalak:** Ruben Aramendia, Fco. Javier Palomino, Iñaki Lasa eta Alejandro Hernandez  
**Zikloturismo taldea:** 25 kide  
**Mountain bike taldea:** 45 kide

## Lasterketak

**Eskolak:** ekainaren 29an Urdiainen, uztailaren 20an Iturmendin, uztailaren 28an Olaztin, irailaren 7an Ziordian eta irailaren 14an Altsasun.  
**Kadeteak:** apirilaren 28an Altsasun eta ekainaren 1ean Iturmendin.  
**BTT proba:** ekainaren 9an XVIII Altsasu BTT Zeharkaldia.  
**Zikloturista:** uztailaren 6an III. Sakana Burunda proba, Altsasun.



**Juniorrak. Quesos Vasco-Navarra-Quesos Albeniz taldea:** Ander Vinagre, Mikel Agerre, Asier Ormazabal eta Ibai Azurmendi. Teknikariak: Andoitz Azurmendi eta Iñaki Romero.



**Rural Kutxa afizionatuen taldea.** Ramon Domene (23 urte, Villena), Ibai Salas (22 urte, Zamudio), Fernando Grijalba (22 urte, Laguna de Duero), Antonio Molina (22 urte, Javea), Carlos Jimenez (21 urte, Puertollano), Migel Angel Benito (20 urte, León), Diego Hernandez (20 urte, Madril), Jacobo Ucha (20 urte, Budiño), Julio Alberto Amores (20 urte, Novelda), Alberto Just (22 urte, Zaragoza), Ruben Martinez (22 urte, Hellin), Diego Rubio (22 urte, Navaluenga), Jesus Alberto Rubio (21 urte, Tomelloso), Joaquin Torres (20 urte, Valdepeñas de Jaen), Francisco Jose Medina (20 urte, Pozoblanco), Jaime Roson (20 urte, Zamora), Felipe del Monte (19 urte, Hoyo de Pinares), Isaac Carbonel (19 urte, Sitges), Victor Soto (19 urte, Tomelloso), Asier Gandarias (20 urte, Lazkao), Asier Unanue (20 urte, Arama), eta Ion Ander Insausti (21 urte, Mutiloa). Managerrak: Floren Esquisabel eta Juanma Hernandez. Zuzendariak: Jaime Garzon, Josemi Fernandez eta Alberto Mazkarian. Mekanikariak: Xabi Angulo eta Felix Mazkarian. Masajista: Paco Cepeda.



**Eskolak. Katealde-Tasca Don Jose-Blender eta Carburantes Azazeta taldea.** Hasiberriak: Unax Gabirondo, Martzel Etxeberria, Jon Chamorro, Oihan Etxeberria, Julen Guerrero, Asier Etxeberria, Mikel Regil, Leonardo Macedo, Iker Begiristain, Enaitz Gabirondo, Mikel Unzilla, Aitor Barandalla, Pablo Senosiain, Jon Aierbe eta Jose Expositio. Kimuak: Jon Ander Borrega eta Iker Mintegi. Haurrak: Josu Etxeberria, Maialen Aramendia, Ailetz Lasa, Raul Granado, Hodei Zia, Oihan Vinagre, Bakarne Gonzalez, Iosu Jaka. Eskoletako teknikariak: Iñaki Lasa, Ruben Aramendia eta Jesus Etxeberria.

# Udako gau bateko amets irurtzundarra

Martxoaren 15ean, ostiralean, 20:00etan eta 22:30ean; martxoaren 16an, larunbatean, 20:00etan eta martxoaren 17an, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean

Irurtzungo antzerki tailerrak *Uda gau bateko ametsa* antzezlanarekin prestatu du, William Shakespearen obran oinarrituta. Grezia klasikoan girotutako komedia erromantiko horretan maitagarriak, gizarteko goi mailako eta behe mailako pertsonaiak dira protagonistak. Haien arteko elkar eraginetatik maitasun istorioak, ametsak, magia eta "egoera sinpatikoak" sortzen dira.

Hori guztia Irurtzungera egoki-



PATXI MIKEO

tu du Angel Sagues zuzendariak. "Obraren esentzia mantendu dugu, baina izen mitologiko zelten ordezkari mundukoak erabili ditugu. Bertako tokien aipa-

menak eginen dira". Saguesek esan digunez, horrela lana "gerutuagokoa" egin nahi dute. Zabubatek besterik ez da izanen eszenatokia. "Elementu horren inguruan ger-

tatu da akzio guztia", aurreratu digu zuzendariak.

Sagues eta 14 aktoreen taldea udazkenetik ari da antzezlanarekin prestatzen. Zuzendariak aitortu digu pozik dagoela Irurtzungera lanean: "talde lanerako ohitura dute, mila kontutan aritutako jendea da. Pozpuzik nago. Jendea laguntzeko prest dago. Ez soilik honetan, beste arlo batzuetan ere, Irurtzungera imitagarria da". Tailerrean gazteak faltan ditu, nahiz eta pixkana sartzen ari direla aitortu.

Asteburuko etxeko emanaldien ondoren, Irurtzungo antzerki tailerra Berriozarren eta Garesen ariko da eta gehiago egon daitezke.

## Uda gau bateko ametsa

**Antzezleak:** M<sup>o</sup> Eugenia Barroso, Maria Esparza, Txeli Garcia, Tere Otxoa, Genma Matxain, Pakita Arruabarrena, Beatriz De Esteban, Olga Gajete, Andoni Ruiz, Peio Alzueta, Javier Gonzalez, Jose Ramon Iruere, Ruben Villar eta Julian Cuevas.  
**Arroparen diseinua:** Taller de Teatro.  
**Kartelaren diseinua:** Xabier Unanua.  
**Argiak, antzerkigintza-zuzendaritza:** Angel Sagües.

## Tradizioa

Irurtzungo antzerki tailerra 2002tik dago martxan, La peluqueria antzezlanarekin.

## ARGAZKILARITZA

### Udazken ikuspegi saritua

Pagoen hosto gorri osatutako tunel moduko batean aurrera oinez doan pertsona bat. Argazki horixe atera zuen Sokorro Alzueta Labianok Iratiko oihanean. Eta Anbarrek antolatutako 8. argazki lehiaketako lehen saria eskuratu du (800 euro). Lehiaketan 1.000 parte-hartzaile aurkeztutako 2.366 argazki neurtu ziren. +www.guaixe.net



## ANTZERKIA

### Susanaren iraultza, Altsasun

Larunbatean, 20:30ean, Iortia kultur gunean  
Clown-antzerki emanaldia da Susanarena (Esther Carrizo). Munduaren desoreka sentitzen du. Aldaketaren beharra ikusten du ere bai, iraultza aldarrikatzen du horregatik. Susanak emakumeengana jo du, emakumeen iraultza antolatzeke nahian, haiek desorekaren ondorio larriena jasaten omen dutenez, etorkizun zilegia eraikitzeke gidariak izanen dira.

## ERAKUSKETA

### Erakusketara bisita

Gaur, ostirala, 19:00etan  
Altsasuko Iortia kultur gunean

Asteazkenaz geroztik Iortian *Myalbum. Bienvenido al reino de la apariencia* argazki erakusketara ikusgai dago. Gaurko bisita gidatuan argazki analogikotik digitalera nola jauzi egin duten azalduko dute eta nola sortu duten familia argazki berria, "etorkizunerako oroitzapenak".



## bazterretik

Jose Luis Asensio

### FUNZEEN sortu berri da!

Guaixen idazten hasi nintzenean MYAKU izeneko fanzinea argitaratzen nuen lagun batzuekin. Gero, ideiak agortuta, aldizkaria desagertu egin zen, baina betidanik izan dut txirrinta bueltatzeko. Baina, zer dira fanzineak?

Fanzineak norberak egindako aldizkaritxoak dira. Hau da, diru laguntza lortu edo norberak ordaindu, publizitatea izan edo ez izan edota bakarrik edo lagunekin argitaratuta, norberak argitaratzen duen aldizkaria da fanzinea. Bete-garria edozein gairen inguruan izan daiteke: musika, kultura, sukaldaritza, politika, eta nire kasuan, komikien inguruan.

Artikulu japoniar kulturarekin erlazionatzeko, jakin ezazue Japonian dauden fanzineen gehiengo komikien inguruko dela eta horiek doujinshi izena dute. Doujinshiak bi motatakoak izaten dira: pertsonaia eta komiki originalez osatutakoak edota ezagunak diren pertsonaien historioen parodiak eginez betetzen diren aldizkariak. Japoniako lehenengo fanzinea, UCHUJIN (espazioko errautsa) izenekoak izan zen, zientzia fikzioaren inguruan ziharduen eta 1957. urtean sortu zenetik bere sortzailea hil arte (2010. urtean, 83 urte zituela) 202 ale argitaratu zituen jarraian.

Lehenengo motakoak niretzat interresgarriagoak izaten dira, berez lan gehiago dutelako. Onak badira egileen aldarrikapentzat har daitezke, argitaletxe bat ezin aurkitu eta nolabait ezagunak izateko egiten den ahalegina baita. Biga-

rren motakoak, ordea, askotan pailazokeriak besterik ez dira, denbora-pasak edota barregura sortzeko eta erraz irakurtzen diren liburuxkak. Hala ere jarraitzaile asko izaten dituzte eta egile hauek ere famatuak izatera iritsi izan dira. Egile famatu asko hasi izan dira doujinshiak egiten, hala nola, CLAMP neska taldea edota Rumi Takahashi "Ranma 1/2" mangaren egilea. Batzutan zaleen arteko topaguneak egiten dira fanzineak trukean aldatzeko edota saltzeko. Hau da ezagunak izateko Japoniako egileek erabiltzen duten modurik garrantzitsuenetarikoa.

Fanzineen ideia hau munduan zehar zabalduta dabil eta edonon aurki daiteke adibide ugari. Askotan profesional bihurtu izan diren aldizkariak dira. Gure artean famatuenetakoa izan daiteke TMEO gasteiztarra, norke du TMEO ezagutzen? Toki guztietan ere fanzineak kalitate ezberdinekoak izan daitezke. Simpleenak, txuribeltzez fotokopiatutako orrialdeak dira, besterik gabe tolestuta eta landuekin profesionalen lanen maila berean egon daitezke. Bakoitzak erabakitzen du zenbateko kalitatea eman nahi dion fanzineari. Bukatzeko, lagun talde batekin hasi berri dudana proiektua aurkeztu nahi dut ere, FUNZEEN izenekoak. Formato digitalean eskuratu ahal izango da fanzinea eta zorte pixka batekin baita paperean ere. Kultur arlo ezberdinak jorratuko ditu, hala nola, poesia, zientzia, komikia, sukaldaritza, bidaiak... ikusiz gero ez galdu irakurtzeko aukera. Myaku.fanzine@gmail.com  
www.fanzinemyaku.blogspot.com



**FLORES**  
arkitektura



948 563 317  
jflores25@terra.es

Iortia plaza 1-1  
ALTSASU

www.arquitecturajavierflores.com



>> Saria:

RAMOS dendak eskainitako MP3 bat



### Argazki lehiaketaren oinarriak:

Parte-hartzaile bakoitzak argazki bakarra aurkeztu dezake. Neguko argazkiak izanen dira. Argazkiak Sakanan eginak izan behar dute (Aralar, Andia eta Urbasa mendiak barne). Argazki digitalak bakarrik onartuko eta jpg formatoa izatea. Bierrik Fundazioak beretako gordetzen du jasotako lanak publikatzeko eskubidea. Lehiaketa honetako parte-hartzaileak, bidalitako lanaren jabe den neurrian, lanak erabiltzen, jendaurraren erreproduzitzen eta jakinarazten uzten dituzte.

Bierrik Fundazioari, euskarri inprimatuan, Interneten edo ezagutzen den beste edozein modutan. Lanak martxoaren 18a baino lehen aurkeztu behar dira Bierrik Fundazioaren Facebook profilaren bitartez edo @Guaixe twitter kontuaren bidez, #guaixeneguko alpainena eginez. Irabazleak nortzuk diren martxoaren 28an jakinaraziko da, astelehen. Argazkiak www.guaixe.net webgunean jarriko dira ikusgai.

# Eskatu Guaixeko inauterietako argazkiak

## Kiki argazki dendan

GUAIXE.NET Iortia plaza • Altsasu • 948 46 90 23




## Finalerako azken deia

Momentuz Lazkozek finalerako txartela du, Leitzak ez

Larunbatean, 17:30ean, Elizondoko Lur aretoan Nafarroako Bertsolari Txapelketako azken finalurrekoa jokatu da. Oier Lakuntza urdiaindarrarekin batera, Migel Mari Elozegi "Luze", Julen Zelaia, Aimar Karrika, Xabi Maia eta Saioa Alkaiza ariko dira bertso-

tan. Saioko onenak finalerako txartela izanen du poltsikoan. Gaiantzekoek puntuazioaren arabera aukera izanen dute finalean sartzeko.

Atarrabiako eta Etxarri Aranzoko finalurrekoen ondoren, finalerako txartela dute dagoeneko Julio Sotok eta Xabier Silveirak. Atarrabian, egungo txapeldunak, Sotok, saio polita egin zuen, bereziki bakarkako ariketetan. Atzetik, Erika Lagoma sailkatu zen. Eta 3. posturako lehia estua izan zuten,

Oskar Estangak, Josema Leitzaketa Iñigo Olaetxeak. Orden horretan sailkatu ziren.

Gainezka zegoen Etxarri Aranzoko kultur etxean bertso saio eder bat izan zen. Xabier Silveira (440) ofizioko lanetan nabarmendu zen eta hala lortu zuen finalerako txartela. Gertu izan zituen, ordea, atzetik sailkatu ziren Jon Barberena (426) eta Eneko Lazkoz (424). Anfritrioiak jaso zituen txalorik gehien. Etxarriko sailkapena horrela osatu zen: Eneko Fernandez (401,5),

Ander Fuentes, Itturri, (389) eta Josu Sanjurjo (378,5).

### Finalerako bidea

Asteburuko bi finalerdietako puntuazioa kontuan hartuta, eta Elizondoko finalerdiaren faltan, momentuz Eneko Lazkozek Iruñeko finalerako txartela poltsikoan luke. 424 punturekin, orain arteko 3. puntuazio onena du etxarriarrak, Erika Lagomaren (436) eta Jon Barberenaren (424) atzetik. Josema Leitzak, berriz, 393,5 punturekin 6. puntuazio onena lortu du orain arte, baina horrek ez dio finalerako txartelike emanen, lehen bostak pasako direlako.

## Euskara, gatazkek garatu duten hizkuntza

Teoria hori defendatzen da heldu den ostegunean, martxoak 14, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean antzetzuko den obran

Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek euskararen historia errepasatuko dute eskenatokian. Eta kontakizuna paradisuan abiatuko dute, non bikote bakar bat bizitzen. Mundua estatiko eta baketsua zen, eta nahikoa ziren onomatopeiak inguruko animaliak eta agerraldi natu-

ralak deskribatzeko. Seme-alaben etorrerarekin sortu zen Euskal Gatazka, orain arte iraun duena.

Bi aktoreek ziurtatzen dutenaren arabera "euskaldunak historian zehar beti ibili dira liskarretan kanpokoekin edo euren artean. Liskarrok sortu eta garatu dute euskara. Gatazka bakoitzari euskararen aldaketa bat dagokio". Teoriko horien ondorioa da euskararen garapena ez dela inoiz geldituko, "gatazkek, modu batekoak edo bes-

tekoak, beti egongo direlako".

### Euskararen firika

Euskal kultura bultzatzea eta euskara gizartearen esparru guztietara eramatea beti izan dira Altsasuko Udala eta Sakanako Mankomunitatearen helburuak. Konpromiso hori hamaika egitasmo eta ekitalditan gauzatu da orain arte. Hitzarmen horri jarraiki, eta Korrika kulturalaren baitan, *Lingua nabajorum* izanen da.



## Lau emakumeren egunerokotasuna, umorez

Larunbatean, 20:00etan, Olatzagutiko kultur etxean: Cruzadas cotidianas

Elkarrekin harremana duten lau pertsonaiak, lau emakumek haien bizitzako 15 minutu erakutsiko dizkigute. *Cruzadas cotidianas* antzezlan umoretsuaren protagonistak izanen dira Maria, Isabel, Carola eta Marta. Aurrena, alarguna, elbarria, bizitzan zehar familiagatik egin dutena ez zaiela aitortu sentitzen

duen emakumea da. Alaba iristeko zain dago emakumea. Hura Isabel da, herri txiki bateko medikua. Lana eta familia kontziliazioa egiteko arazoak dituena eta zoriontasunik lortu ez duena.

Azken horren etxean lan egiten du Carolak. Etorikina da eta bere migrazio prozesua eta haren ondorio gordinak kontatzen ditu, optimismoa eta bizi-poza erakutsiz. Agertokian azalduko den azkena Marta izanen da, haur hezkun-

tzako irakaslea. Klaseko gorabeherak errepasatu ondoren, bikotearekin asteburu pasa joateko gogo ikaragarriak dituenak. Baina azken unean planak izorratuko zaizkio.

Azkoiengo La Traperak antzerki taldeko Cristina Castillok jokatuko ditu pertsonaia guztiak. Pertsonai aldaketak jendaurrean egingen ditu, musika eta koreografiak lagunduta. Bruno Ziordia da lanaren zuzendaria.

## Bierrik-en aldeko erromeria bihar Olaztin

Eingo al deu taldearekin, 23:00etatik aurrera, Olatzagutiko Maisuenea gaztetxean, rallysprintaren ondoren

Heldu den ostiralean Esne Beltza eta Lurra ariko dira, 22:30ean, Korrika kulturalaren barruan

Biharkoan motor hotsak nagusi izanen dira Olatzagutian, bertan jokatuko den rallysprinta dela eta (ikus 9. orria). Jendea Olatzagutira hurbilduko dela

baliatuta Olaztinako Gazte Asanbladak gauerako erromeria antolatu du gaztetxean. Eta irabaziak Sakanan euskarazko hedabideak sustatzen dituen Bierrik fundazioari emanen dizkio.

Aste bat geroago gaztetxe beretan, eta Korrika Kulturalaren barruan, Esne Beltza taldeak kontzertua eskainiko du. Sarrerak dagoeneko Clinkerren salgai daude.

MARTXOAK 9, LARUNBATA • 20:30

Doakoa

**REVUELTA SUSANA**  
UHARTEAN ANTZERKIA

Saxana y el libro de hechizos 3€  
IGANDEA 10 17:00

The Deep Blue Sea 5€  
OSTIRALA 8 21:45 IGANDEA 10 20:00

El Vuelo 5€  
OSTIRALA 8 22:00 IGANDEA 10 20:10

Frontoiko zeharbidea, z.g. 31800 • Altsasu • 948564272 • iortia@altsasu.net • www.facebook.com/iortia

Sarrerak salgai: leihatia • 019 • entradas.com

**G** asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 46%	euria: 20%	euria: 18%	euria: 40%	euria: 98%	euria: 78%	euria: 80%
Min: 6 Max: 15	Min: 7 Max: 14	Min: 6 Max: 13	Min: 5 Max: 11	Min: 0 Max: 1	Min: -4 Max: 3	Min: 0 Max: 5

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	-	-	-
Etxarri A.	19.5	-4.9	18.3
Altsasu	17	-5.5	13.4
Aralar	10.2	-4.6	0.1
Urbasa	9	-8	78.7

: ilargiaren aldia>>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
11	19	27	3

**Acrycolor SISTEMA BERRIA** **KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE** **KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA**

**EGOKI** VENTANAS PVC LEIHOAK Tel: 948 563 253 Arkinorruti Industrialdea, OLAZTI Erakusketa: Olite kalea 16 IRUÑEA

**MARTXOAK 9 2013**

**I-RALLYSPRINT**

**OLAZTI URBASA**

SAKANA MOTORSPORT

**I.GUAIXE SARIA**

ordutegia/horario:  
14:00tan 1.tramoa. **HASIERA**  
ordu 1'erdira 2.tramoa  
ordu 1'erdira 3.tramoa  
ordu 1'erdira 4.tramoa

Antolatuntza:  
Guaixo.net

**BAIZA** Grupos **BAIZA** Servicio 24 h

**EULATE** Servicios Eléctricos **salmen etxea** estudio de cocina y baño

**IGORROIN** **maksa** **LASTADI S.L.**

**Noticias** **Txartel** Imprenta - Papeleria

**Goko** **KOKKATABERNA** **denck** **ANTONIO** **erburua**

**BARIN** **MATXUGA** **RAC** **VALCARCE** **Gobierno de Navarra**

# >> 11 galdera

**Maitane Aiestaran Zinkunegi**  
Sakanako KORRIKA arduraduna

Testua: Alfredo Alvaro Igoa

**1. KORRIKA 18. Adinez nagusi?**  
Iritsi gara. Egia da, egia da. Zahar-tzen ari da KORRIKA ere, baina izpirituz beti gazte.

**2. Zergatik behar du euskarak KORRIKA egin?**  
Zorritzarrez euskara alde guztietatik baztertu xamarra dago. Euskara aurrera ateratzeko jendearen lana behar da, jendearen laguntasuna eta dirua. KORRIKAK euskara nola zabaltzen dugun eta jendeak nola laguntzen digun erakusten du. Eta, bide batez, dirua biltzeko aukera ona ematen digu.

**3. Nafarroan gehiago?**  
Bai, batez ere diru-laguntzen aldetik oso eskas gabiltzalako. Beti izan da eskas eta orain geroz eta gehiago. Hori bai, jendea prest dago eta hori eman nahi dugu erakustera: Nafarroan euskararen alde dagoen zenbat jende agertzen den KORRIKara. Eta Sakanan erakusteko zenbat jende dagoen prest, lanean ari den zenbat euskal jende daukagun Sakanan.

**4. Eman euskara elkarri. Zer esan nahi du?**  
Euskara erabiltzeko tresna dela; bata besteari eman behar diogula, opari eder bat dela euskara ematea. Komunikatzeko erreminta oso ona dugu.

**5. Ikasle guztiak omenduko dituzue. Nota onak atera dituzte?**  
Den-denek. Behinik behinik esfortzuan. Gero azkeneko emaitzan denetarik dago. Euskara ikastea ahalegin handia da: jendea lanetik etorri eta egunero hemen bi orduz egotea, benetan esfortzua



da. Nik uste dut eskertzekoa dela. Gainera, ordaindu egin behar dute. eta heldua zarenean hizkuntza berri bat ikastea ez da erraza. Lan hori eskertzekoa da.

**6. Sakanan zenbat ikasleri egin beharko diogu ahaleginaren aitortza?**  
130 bat dira eta haiek lehenengo jarriko ditugu korrika, bixi-bixi. Prest daude.

**7. KORRIKA, noiz hasiko da eta non?**  
Heldu den ostegunean hasiko da, Andoainen. Sakanatik gaueko ordu txikietan edo gaueko ordu luzeetan pasako da; ez dakit nola esan. Martxoaren 15ean izanen da. Otzaurten hartuko dugu lekukoa 2:20ean eta 7:20ean utziko dugu Irurtzunen.

**8. Aurretik KORRIKA batzordeak sortu dira?**  
Bai. 14 batzorde ditugu aurten. Jende asko bildu da eta jendea lanerako prest azaldu da. Eskertzekoa da, Sakanan bezalako eskualde bat mugitzea bestela ez da erraza. Dei batekin jendea biltzea benetan pozgarria da.

KORRIKA kulturala martxan dago: hainbat ekitaldi antolatuta dira, KORRIKA egunak, afariak, bazkariak, denetarik... Gero eta KORRIKA egun gehiago daude. Herrietako batzordeek erabaki dute egun bakarrean KORRIKAREN inguruan hainbat ekitaldi bil-

tea egun pasa polit bat sortzeko herrian. Sakandarrak parte hartzea anima daitezela!

Oso arropa polita dugu. Salgai egonen da KORRIKA egunetan, denetarik dugu. Laguntzeko eta ezagutarazteko beste modu bat da.

**9. Sekula korrika egin ez dutenak ere korrika ikusiko ditugu?**  
Bai halako gauza kuriozoak ere gertatzen dira: nolatan? Eta gero urte guztian zer gertatzen da. Une jakinaz gain, urte guztian behar dugu laguntza.

**10. Hobe euskaraz hitz egitea urte guztian?**  
Adibidez. Saiakera hori egitea. Euskara da komunikatzeko daukagun oso tresna polita, ez duguna atzean utzi behar. Benetan euskaraz bizi gaitzke Sakanan. Zorritzarrez ez toki guztietan, baina ia toki guztietan bai. Gure artean hori lortu behar dugu.

KORRIKAREN azken helburua euskaraz bizi ahal izatea da. Nahi duenak, behinik behin, ahal izatea, toki guztietan.

**11. Korrika lortu daitezke helburuak?**  
Euskararekin, nik uste, oso mantso goazela, azkarragoa joan gitezke. Saiatzen gara korrika egiten baina ez pentsa hain azkar goazenik. Oso mantso goaz. Azkarxeago joan gaitzke gauza batzuk egiten.

**ERRONMERIA**

MARTXOAK 9 LARUNBATA

GAUEKO 23ETAN

**Erromerixea? (erromerixe andoain)**

**MAISUENEA**

**GAZTETXEAN**

OLAZTIKO GAZTE ASARTELADA